

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 858/2016 Erabakia, abenduaren 20koa, onartzen duena Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020)

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Planak Arabako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko programa esparrua eskaintzen du.

IV. Planaren abiapuntua Aldundiak berdintasun politikak bultzatzen eta garatzen daukan esperientzia luzea da. 1999tik 2014ra bitartean berdintasunerako hiru plan abiarazi dira progresiboki.

Berdintasuneko foru politika gidatzen duen arau esparrua hauek eratzen dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko 1979ko hitzarmenak (CEDAW, Espainiak 1984an berretsi zuena). Arau esparruarekin batera, NBEtik Europar Batasunetik, espainiar Estatutik eta EAetik datorren programa esparru zabal bat dago, zehazki, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2014-2016 VI. Plana.

Arabako Foru Aldundiaren eremuan erreferentzia 2015-2019 Legegintzaldirako Plan Estrategikoa da, zehazki, 10. ardatza, "Gobernantza, Berdintasuna eta Giza Eskubideak".

IV. Plana egitearekin batera, "Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2010-2014 III. Foru Planaren ebaluazioa" eta "Arabako emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikei buruzko diagnostikoa" egin dira. Dokumentu biak IV. Plana egiteko oinarriak izan dira. Ebaluazioa ikuspuntu sistemiko eta pluralista batetik egin da –ebaluazioaren funtsezko kontuetan stakeholder edo funtsezko eragileen ikuspuntuak sartzea bermatuz eta metodologia batez ere kualitatiboa erabiliz.

Ondorio eta gomendioen artean, hauek atera dira: benetako mainstreaming estrategia bat bilatzea, Aldundiaren politiketan genero ikuspegia sartuz; ekintzen diseinua era malguan bideratzea, Planari lotutako kanpoko eta barneko eragileen premiak eta aniztasuna kontuan hartuz; langile guztiak berdintasunaren konpromisoan engaiatzea; genero arkitekturari eustea eta oinarritzea, Planaren egungo egituren jarduerak eta funtzionamendua birpentsatuz eta Berdintasun Zerbitzuari behar beste giza baliabide eta baliabide tekniko emanez; jarraipen sistema bat ezartzea eta ebaluatzeko gaitasuna instalatzea.

Diagnostikoa Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailearen baldintza bat da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako erakundeen informazioa jasotzen du berdintasun politikei buruz; halaber, xehetasunez aztertzen ditu Aldundia bera eta kuadrillen eta udalerrien errealitateari nahiz Berdintasun Kontseiluari.

Plan hori Arabako Lurralde Historikotik eta haren errealiterako prestatu da eta oso egokিতa dago haren gaitasunei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politiken eremuan egingdako bideari eta une honetan gure lurraldean berdintasuna aurrera egiteko dauden erronkei.

Egiteko prozesuan herritarrek parte-hartze zabala izan dute zenbait prozesu eta formaturen bidez; haien artean egon dira, besteak beste, Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru kontseilua, Arabako Lurralde Historikoko langile tekniko eta politikoak, Arabako Foru Aldundiko langileak, berdintasun politiketako adituak eta Aldundiko zuzendaritzak eurak.

IV. Planak darabilen esku-hartze publikoko ikuspegiak zazpi printzipio gidari hartzen ditu oinarri:

– Feminismoa eta haren korranteak, emakumeen eta gizonen arteko harremanak eraldatzeko teoria gisa.

– Emakumeen eta gizonen bizitzaren eremu guztietan bizi dituzten errealitate desberdinak eta elkarguneak bistartzea ahalbidetzen duen genero ikuspegia. Haren abiapuntua Arabako Lurralde Historikoko emakumeen aniztasuna kontuan hartzea da.

– Berdintasuna gizarte eta banako balio gisa; izan ere, balioak aldatu gabe berdintasuneranzko aldaketa ez da posible.

– Aurrekontuaren eta baliabideen bermea, emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko engaiamendua eta borondate politikoa gauzatzea ahalbidetzeko.

– Ebaluazioa AFAren kulturaren parte gisa. Politika publikoak ebaluatzeko kultura egoteak gardentasuna eta kontuak ematea bermatzen ditu.

– Erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana. Sail, foru sozietate eta erakunde autonomo guztiek daukate erantzukizuna emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

– Emakumeen eta haien mugimenduen parte-hartzea eta aintzatespena. Eragiten dieten erabakiak sortzen eta hartzen diren esparruetan egotea.

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren helburua 2016-2020 epean politika publikoetatik berdintasuna bultzatzeko estrategia egituratzea da.

Hauek dira IV. Planaren helburuak:

Aldundiaren politika orokorretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa sartzea indartzea eta finkatzea.

AFAko erakundeen kulturaren aldaketa bat bultzatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna haietan egon dadin.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun eta bereizkerien adierazpen guztietan eragitea, haiek ezabatzen laguntzeko.

Politika publikoetatik egindako esku-hartze oroien helmuga emakumeen ahalduzkoa izatea ahalbidetzea.

Lurralde oreka eta toki garapen jasangarria lortzen laguntzea, lurraldeko alde landarrenarentzat pentsatutako berdintasun politiken diseinuari bereziki helduz.

Lan esparru errealista, posiblea, garden, neurgarri eta ez finalista ezartzea, aldaketa prozesuak sortzeko.

IV. Planak esku hartzeko lau eremu ezartzen ditu berdintasuneranzko aldaketarako. Lehenengo, gobernu ona, ezinbesteko hiru lanabes biltzen dituen tresna gisa: konpromiso politikoa, genero gobernantza eta mainstreaming edo zeharkakotasuna eta demokrazia parte-hartzailea. Bigarren eremua emakumeen ahalduzkoa da, alde pertsonal, kolektibo eta politikoetan. Hirugarren ardatzari emakumeen aurkako indarkeriei eta beste indarkeria matxista batzuei dagokie; indarkerien zuzeneko agerpenei, egiturazko indarkeriari eta indarkeria kultural eta sinbolikoari heltzen zaie ardatz horretan. Laugarren esku-hartze eremua zaintzen kultura eta antolamendu berriari dagokie; beste zaintza eredu bat ezartzeko funtsezko hiru alderditan eragitea bilatzen du: zaintzak eta haien banaketa desorekatuak emakumeen bizitzetan daukaten kostuak ikusgai bihurtzea; norberaren denborarako eskubidea, norberaren ongizaterako autozaintzari eta aukera posibleen bilaketari lotuta dagoena, zaintzen kudeaketari, gizarte antolamendutik, era kolektibo eta arduratsuan hel dakion.

Guztira, Planak lau ardatz eta 12 ildo estrategiko biltzen ditu.

IV. Planaren barne kudeaketarako ereduak koordinazio eta kudeaketa egitura dinamika bat dauka, pieza hauek eratua:

Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak, Planaren organo bultzatzaile eta sustatzailea eta erakundeen arteko koordinazioaren lotura izanik, batez ere kuadrilla eta udalerriekin, berdintasunerako toki politikak garatzeko eta bultzatzeko.

Sailarteko batzorde politikoak; Zuzendaritzek osatzen dute eta haren eginkizun nagusia erabaki politiko eta estrategikoak hartzea da.

Sailarteko batzorde operatiboak; zeharkako eskumenak dituzten zerbitzuko buruzagitzek osatzen dute eta haren lana Planaren jarduerak koordinatzea eta haiei sostengu ematea izango da, programazio orokorrak garatuz.

Ad hoc lantaldeek; egitura horiek izango dute jarduerak gauzatzeko eta haien jarraipena egiteko erantzukizun zuzena.

Kanpoko egiturak eta programazio, jarraipen eta ebaluazio iraunkorreko mekanismoak ere identifikatzen dira.

Jarraipen sistemak funtzionaltasun bikoitza dauka: alde batetik, informazioa sortzea, ekintzak gauzatzen lagundu ahal izateko eta, bestetik, ebaluazio iraunkorraren eta azken ebaluazioaren oinarriak finkatzeko informazioa sortzea.

Ebaluazioak zenbait une eta ebaluazio ekoizpen bilduko ditu: ebaluazio iraunkorra, jarraipen txostenei lotua; azken ebaluazioa, kualitatiboa dena, eta ebaluazio partzialak, ezartzeko prozesu osoan egingo direnak.

Horregatik, Diputatu Nagusiak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020) onartzea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN

Arabako gizonen eta emakumeen
BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana (2016-2020)



BERDINTASUNERAKO



Arabako gizonen eta emakumeen

BERDINTASUNERAKO IV

Foru plana (2016-2020)

AURKEZPENA

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Plana egungo legegintzaldia hasi eta urtebete geroago eta Legegintzaldiko Plan Estrategikoa onartu eta zenbait hilabete ondoren onartu da, eta programa esparru bat eskaintzen du Arabako Foru Aldundiaren (AFA) berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko; beraz, gobernua epe horretan arloan duen konpromisoa erakusten du.

IV. Plan hau Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2011-2014 III. Foru Plana ebaluatu bitartean definitu eta egin da. Hori dela-eta, prozesu irekia sortu da, zeinean hura garatzen zuzenean nahiz zeharka esku hartu duten eragileek parte hartu baitute. Halaber, III. Planak iraun bitartean egindakoari buruz hausnartu eta hitz egiteko espazioak erraztu ditu eta proposamen eta lan egiteko modu berriak proposatu ahal izan dira. Haien bidez, egin behar den bidea argitu da, ikasitakoa eta bizi izandakoa abiapuntu hartuta.

Partaidetza handia izan duen prozesu bizi eta aberasgarri horretatik sortu da IV. Plana, Arabako Lurralde Historikoaren (ALH) errealitaterako pentsatuta, eta haren gaitasunei eta Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko politiken eremuan egindako bideari egokituta. Hortaz, Plana errealitateari oso lotuta dago eta haren lan proposamena handinahia da, baina era erraz eta operatiboan dago pentsatuta.

Aurkezten den Berdintasunerako IV. Foru Plana argi bereizitako hiru area edo multzotan dago egituratuta:

- ▶ Lehenengoan planaren sorrera eta egitura azaltzen dira. Arabako Foru Aldundiak berdintasun politiken esparruan dauzkan aurrekariak eta ibilbidea abiapuntu hartuta, IV. Plana definitu eta egiteko ezarritako prozesuan gelditzen da, Plana irakurtzea eta ulertzea errazten duten haren egituraren funtsezko alderdiak aurreratuz.
- ▶ Bigarren multzoak, Planaren "bihotzak", haren muin nagusia dauka eta ekintza neurriak zehazten dira han. Multzo hau IV. Plana eragin edo haren abiapuntu diren printzipioen eta lortu nahi dituen helburuen berri ematen hasten da. Plana osatzen duten lau ardatzak garatzen dira han, Emakunderen aginduaren arabera, baita haietako bakoitzerako proposatutako neurriak ere, zenbait ildo estrategikoren inguruan egituratuta. Halaber, neurri bakoitzeko haiek denboran gauzatzeko eta planifikatzeko ardura duten arloak zehazten dira.
- ▶ Laugarren eta azken multzoak, IV. Planaren "makina gelak", kudeaketa ereduaren berri ematen du. Ildo horretatik, koordinazio egitura malguak proposatzen ditu IV. Plana ezartzeko, eta programazio, jarraipen eta ebaluazio mekanismoak identifikatzen ditu.

Eranskin bat ere sartu da. Informazio osagarria bildu da hor. Parte hartzeko prozesua zehaztu eta IV. Plan hau definitzen eta garatzen den arau eta programa testuingurua eta AFAn sailetan indarrean dagoen egitura laburbiltzen ditu. IV. Planaren garapenean jardun behar duten sailak identifikatzea errazten du horrek. Azkenik, adierazle strategikoak ardatz eta ildo strategikoen arabera adierazten duen taula bat jasotzen da.

3

AURKIBIDEA

I. ATALA. PLANAREN SORRERA

I.1 AFA-KO BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA: LORPENAK ETA ERRONKAK	5
I.2 IV. PLANA EGITEKO PROZESUA ETA HAREN EGITURA	8

II. ATALA. PLANAREN MUINA

II.1 IV. PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK	12
II.2 XEDEA ETA HELBURUAK	13
II.3 BERDINTASUNERANZKO ERALDAKETARAKO ESKU-HARTZE EREMUAK	14
II.3.1 GOBERNU ONA.....	14
II.3.2 EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	18
II.3.3 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTA BATZUK	20
II.3.4 ZAITZEN KULTURA ETA ANTOLAKETA BERRI BAT	23

4

III. ATALA. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA

III.1 SARRERA: MUGIMENDUKO PLAN BAT	26
III.2 KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA EGITURAK: OINARRIZKO GENERO ARKITEKTURA BATERANTZ	26
III.3 PROGRAMAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA: PROZESU DINAMIKO BATEN TRESNAK	29

ERANSKINAK


I.	
BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN XEHETASUNAK	36
II.	A
RAU ETA PROGRAMA ESPARRUA LABURBILDUTA.....	38
III.	
AFA-KO SAILEN INDARREKO EGITURA	44
IV. ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	46

I. ATALA. PLANAREN SORRERA

I.1 AFA-KO BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA: LORPENAK ETA ERRONKAK

Berdintasunerako IV. Planaren abiapuntua AFAK berdintasun politikak bultzatzen eta garatzen daukan esperientzia luzea da. 1999tik 2014ra bitartean berdintasunerako hiru plan abiarazi dira progresiboki, aurrerapen gisa, grafiko honetan jaso denez. Bestalde, haien ezarpenak zenbait kudeaketa, koordinazio eta jarraipen egituraren bilakaera ekarri du, kasu batzuetan aitzindariak EAE osorako.

ARABAKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO FORU PLANEN LABURPENA



1999 baino lehenago, ordea, zenbait mugarri daude berdintasunerako politiken arloan:

- 1991n AFAK **Berdintasunerako Aholkularitza** sortu zuen, EAEn ezarri den mota horretako lehen erakundea. Hasieran haren eginkizuna Araba Lurralde Historikoan Emakunderen Emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-1994 I. Plana ezartzea izan zen eta, iraun duen bitartean, berdintasun politikak lurralde horretan bultzatzea ahalbidetu du, Emakumerekin eta haren ondoz ondoko berdintasunerako planekin lankidetzan estuan.
- Geroago, 1996an, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) **Emakumeen Arabako egoerari buruzko azterketa: generoa eta gizarte desberdintasunak** izeneko azterlana egin zuen; Arabako lurraldean emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat egitea gomendatu zen han.

- **1999an Arabako emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. Foru Plana egin zen.** Plan hori birritan luzatu zen eta amaitutzat jo zen 2003ko irailean. Lehen plan hori barnekoa izan zen eta haren parte-hartze prozesurako sailarteko batzorde tekniko bat –AFAko berdintasun politikoen arloko barne koordinaziorako lehen egitura-, sailaz saileko lantaldeak eta elkarte sarea sortu behar izan zen.

Hurrengo planak eta ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen esparruan egin ziren. Lege horrek, besteak beste, berdintasunerako politika eta estrategien bultzada eta diseinua arautzen ditu, baita borondate politikoen mende ez dauden berriazko egiturak ere, eta berdintasunerako gobernamentua ezartzen du lurraldeko planen zeharkako arlo.

Testuinguru horretan hauek sortu ziren:

- **Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana.** Plan horrek, aurrekoaren aldean, genero ikuspegia sartu zuen politika publikoetan, baita genero indarkeriaren arloa ere. Plan hori kanpotik egin zen eta erakundeak barruan parte hartu gabe, eta garatzeko zailtasun asko izan zituen, Berdintasun Aholkularitza desagertuta eta lehenago eraturako egiturak geldituta.
- **Berdintasun, Lankidetzeta eta Immigrazio Zerbitzua** 2008an sortu zenb, zehazki, 2007-2011 legegintzaldian, berdintasunaren eskumena GOFetik Gizarte Sustapen Zuzendaritzara aldatzarekin batera. Parte-hartze zabaleko barne eta kanpoko prozesu bat bultzatu zen orduan hirugarren plana egiteko. Erakundeko langileen prestakuntza eta zeudenak osatzeko arlo egiturak garatzea jasota.
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arloko Batzordeak**, 2010ean; haien eginkizun nagusia genero ikuspegia Aldundiko sailetan eta atxikitako erakundeetan sartzeta da.
- **Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2010-2014 III. Foru Plana.** Berdintasunaren arloko nazioarteko, estatuko eta autonomia erkidegoko arau eta programa esparru on batean egin zen. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeaz gain, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ere indartu zuen. Abian dago IX. legegintzaldiko Plan Zuzentzailea, beraz, Emakundek bultzatutako gidalerroekin, haren egitura ardatz eta jarduera eremuetan ezartzen da, gobernamentua zeharkako ardatza izanik, arloko hiru ardatz eta genero zeharkakotasuna esku-hartzeko estrategia gisa.

Bere aurrekoen aldean, III. Plan horrek irmotasunez egiten du genero mainstreaming edo zeharkakotasuna politika publikoetan ezartzearen alde, eta erabaki irmoa ezartzen du erakundearen kultura politikoa aldaketa bat sartzeko, AFAREN kudeaketan eta antolamenduan genero ikuspegia sartuz. Halaber, III. Planaren ebaluazioa egiteko konpromisoa hartzen du.

Eta, azkenik, egungo legegintzaldiaren esparruan, Aldundian genero zeharkakotasuna indartzen zailentzen gabe laguntzen duten elementu bi azpimarratu behar dira:

- **2015ean Berdintasun Zerbitzua zuzenean Diputatu Nagusiaren Sailaren mende geratu zen eta**
- **2016an, Legegintzaldiko Plan Estrategikoa onartu zen.** Haren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasuna esku hartzeko lehenetsitako arlo estrategikoa da.

Egindako bideak lorpen eta erronka hauek aurreratzea ahalbidetzen du, eta IV. Foru Plana gidatzen du:

BARNEKOAK

► Laugarren plan honentzat erronka nagusietako bat aurrerapenak finkatzea eta gobernu onaren barruan generoaren zeharkakotasunean sakontzea da. Orain arte lorpen handiak egin dira Aldundian berdintasunaren arloko sentsibilizazioan, informazio gehienean sexu aldagaia sartu da eta hizkuntzaren erabilera ez sexista orokortu da, besteak beste. Generoa erakundearen pixkanaka sartzeko bidea aztertzea ahalbidetzen duten adierazle horiekin batera, ordea, esfortzua egin behar da genero ikuspegia Aldundiaren politiken eta berariazko lan esparruen kudeaketa zehatzean aplikatzeko.

► Aldundiko langileak engaiatzeko mekanismo egokiak behar dira berdintasunaren eta generoaren arloko sentsibilizazioan eta ezagupenean erdietsitako lorpenak orokortzeko. Ildo horretatik, alderdi garrantzitsu bat prestakuntzan sakontzea da, erakundeko langile guztiek zeharkako nahiz berariazko edukiko prozesuetan parte hartu ahal izateko. Prestakuntza hori oso baloratuta dago, sektorearen beharrezko zehatzak genero ikuspegiaren baldintzari lotzen baititu. Prestakuntza programa horiek esparru zabalago batean, hala nola Aldundiaren berdintasunerako barne plan batean, abiarazteak, zalantzarik gabe, generoaren zeharkakotasuna eta, beraz, erakundearen berdintasunerako gobernamentua orokortzen lagunduko du.

► Genero zeharkakotasunerako prozesuaren iraupena ziurtatzeko azpimarratu behar den beste alderdi bat Berdintasun Zerbitzuarentzat behar beste baliabide jartzea eta gainerako berdintasuneko egitura osagarriak indartzea da. Ildo horretatik, beharrezkoa litzateke talde horiek indartzea, genero ikuspegia duten politika publikoen jarraipena egin nahiz haien kudeaketarako laguntza eta aholkularitza eman ahal izateko. Ildo beretik, Berdintasun Zerbitzua Aldundiko sailekin koordinatzeko lana azpimarratu behar da, etorkizuneko genero unitateen gune aitzindari gisa.

► Berdintasunaren arloko koordinazioari dagokionez, hari bere dimentsio guztietan eusten jarraitu behar da. Batzorde artean, esparru funtzionalak gain gaikakoak ere sortzeak eta batzordeekin lan egiteko programen bidez sailen arteko politika indartzeak, beste koordinazio ahalegin batzuekin batera, planaren emaitzak hobetuko dituzte eta berdintasuneko eta gobernamentua hobetzeko berariazko jarduerak ikusgai egiten ere lagunduko dute.

KANPOKOAK

► Erakundearteko koordinazioari dagokionez, batzuetan kuadrillen, udalerrian eta kontzejuen berdintasunaren arloko jarduerak isolatuta eta lurralde osoaren ikuspegiarik gabe daudela eman dezake. Koordinazio bide sendoak ezartzea eta arlo horietan pertsonal aditua indartzea laguntza handia izan daiteke lurraldean genero politikak garatzeko.

► IV. Plan hau abiarazten den testuinguruan, Aldundiak elkarte sarearen protagonismoa indartu behar du, horretarako haren parte-hartzea eta autonomia indartuz. Aldundiaren eta Arabako berdintasunerako Foru Kontseiluaren arteko koordinazioa eta emakumeen elkarteentzako laguntza funtsezko oinarriak dira gizarte zibilak lurraldeko politikan duen eragina indartzeko.

OROKORRAK

► Lurraldeko berdintasun politiken jarraipenaren eta ebaluazioaren arloan sakontzen jarraitu behar da. Jardueraren jarraipen mekanismoak nabarmen hobeto daitezke datuak biltzeko sistematizazioa eta aldizkakotasuna errazteko tresnen bidez, zeinek, aldi berean, planaren bide onari buruzko txostenak egitea ahalbidetuko bailukete. Bestalde, analisisan sakontzen jarraitu behar da, adierazle kuantitatibo esanguratsuetan ez ezik, neurketa kualitatiboetarako kontatzeko gaitasuna duten adierazleetan ere bai, oso beharrezkoak baitira pertsonen inplikazio, gogo eta engaiamendu maila jokoan dagoenean.

7

I.2. IV. PLANA EGITEKO PROZESUA ETA HAREN EGITURA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Plana AFAk egindako plana da eta herritarren parte-hartze zabala dauka. Lurralde batentzat dago pentsatuta, zeinak berezitasunak baitaizka, bere landatartasuna dela-eta –bere udalerrien kopuruari eta tamainari dagokienez-, EAEko beste lurralde historikoen aldean, AFAk berdintasun politiketan duen ibilbidea eta garatzen den erakunde eta politika ingurunea kontuan hartuz.


Egiteko prozesuan, IV. Plan honek, EAEko arau esparrua ez ezik –EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren babesean sortzen da IV. Plana-, estatuko eta nazioarteko esparrua (ikus eranskina) ere biltzen ditu, baita protagonismo erabakigarria izan duten elementu edo tresna bi ere:

- **Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazioa.** Ikuspegi sistemiko –nola lotzen diren, modu konplexuan, helburuak, baliabideak, prozesuak eta emaitzak testuinguru jakin batean- eta pluralista –ebaluazioaren funtsezko kontuetan *stakeholder* edo funtsezko eragileen ikuspuntuak sartzea bermatuz- bat pentsatuta, gerturatzeko modu batez ere kualitatiboa erabiliz.
- **ALHko berdintasun politikoei buruzko diagnostikoa.** EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren baldintza da hura, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko eta Gipuzkoako informazioa jasotzen du, berdintasun politikoi buruz, erreferente gisa. Bestalde, AFaren eta kuadrilla, udalerrri eta kontzejuen, baiz Berdintasunaren Foru Kontseiluaren azterketa xehea ere eskaintzen du.

Euren ezaugarriengatik, tresna biak Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2016-2020 IV. Plana egiteko oinarri bihurtu dira¹.

Ikuspegi horretatik, IV. Plan hau argi berezitateko hiru fasetan egin da, 9 hilabetetan, grafiko honetan adierazten den eskemaren arabera:

IV. FORU PLANA EGITEKO FASEAK



Zehazki, fase bakoitzak alderdi hauek hartu ditu ardatz:

- **Ebaluazio eta diagnostiko fasea.** Arakatzeko eta ikertzeko fasea da. 6 hilabetekoa izan da, eta dokumentazio bilaketa eta informazio bilketa, nahiz landa-lana bera osatu ditu, bai ebaluaziorako, bai diagnostikorako. III. Planaren ebaluazioa eta ALHko aukera berdintasunerako politiken diagnostikoa egiteko gauzatu den hausnarketa eta analisi prozesuari esker, fase honetan oinarriak ezarri ahal izan dira IV. Planaren funtsezko edukiak formulatzeko, esku hartu duten eragileen esperientzia eta hausnarketetan oinarrituta.
- **Definizio eta egituraketa fasea.** Fase horretan IV. Planerako *ad hoc* egindako parte-hartze prozesu bat zabaldu da. 3 hilabetekoa izan da, eta aurrez aurreko nahiz *on line* espazioen esparruan parte

¹ Dokumentu biak AFaren webgunean eskura daitezke kontsultatzeko.

hartzeko tresna praktikoak definitu eta abiarazi dira, Planaren lehen zirriborroa –ardatzak, ildo estrategikoak eta ekintzak edo neurriak- eraikitzeko.

Parte hartzeko prozesuari esker, errealitateari oso lotutako proposamenak eta neurriak egin, baloratu eta balioztatu ahal izan dira, koherentzia, eta kudeaketa ereduaren lehen eskema egin ahal izan da.

- **Egiteko eta onartzeko fasea.** Azken fase horretan, Plana idatzi eta balioztatu eta kontrastatzen da, osorik, eta itxi egiten da. Hiru hilabeteko fasea izan da eta berariazko lan saioak egin dira Berdintasun Zerbitzuarekin eta hausnarketa eta analisi saio bat adituekin. Azkenik, IV. Planean jasotako neurri guztiak zuzendaritzekin balioztatu dira, zuzendaritza bakoitzarentzako ad hoc dokumentuen bidez.

Egiteko prozesuari esker, planei buruz hausnartu ahal izan da, berdintasun politiken esku-hartze tresna gisa, funtsezko kontzeptuei eta inguruneke esperientziei buruz, eta IV. Plana ixteko kudeaketa eredu ezarri eta balioztatu ahal izan da. Era berean, zuzendaritza bakoitza konprometitzen den neurri guzti-guztiak adosten lagundu du.

Fase horiek Berdintasun Zerbitzuak bultzatutako parte-hartze prozesu bizi baten esparruan gauzatu dira. Haietan, hauek aritu dira, zenbait mailatan:

- AFAko zuzendaritzak eta langileak eta hari atxikitako erakundeetakoak
- Berdinsarea sareko eta Berdinbidean zerbitzuko kideak
- Kuadrilla eta udalerrietako langile teknikoak eta politikoak
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseiluan parte hartzen duten elkarte mugimenduaren ordezkariak.
- ALHn berdintasunaren arloan erreferentzia teknikokoa den AFAtik kanpoko langileak.
- Genero berdintasuneko politiken eremuko adituak
- Arabako gizarte eta herritarren erakundeak eta mugimenduak eta herritarrak eurak.

9

Indarraldiari eta egiturari dagokienez:

- Indarraldiari dagokionez, bost urterako plana definitzea erabaki da, epe horri egokia iritzi baitzaio, ezarritako plangintzaren arabera.
- Abiapuntua plan erraza da, EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak jasotzen dituen 4 ardatzeko osatua. Hauek dira ardatz horien izenak.
 - ➔ Gobernu ona
 - ➔ Emakumeen ahalduntzea
 - ➔ Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk
 - ➔ Zaintzen kultura eta antolaketa berria.

Ardatz bakoitzak egitura hau dauka:

- Sarrera moduko aurkezpen bat. Aurkezpen hori hurbildu egiten da edo kontzeptu esparruarena egiten du, eta ildo estrategikoak gidatzen dituzten esku-hartzea eta funtsezko alderdiak bideratzen ditu.
- Ardatz bakoitza zenbait ildo estrategikotan dago egituratuta.
- Ildo estrategiko bakoitza, bere helburuen definizioa oinarri hartuta, esku-hartze neurri praktikoen bidez egituratzen da. Neurri horiek ardatz eta ildo estrategikoen arabera daude kodetuta, eta dagozkien sail, zuzendaritza edo zerbitzuak lotzen zaizkie, euren erantzukizun mailaren arabera. 1. maila erantzukizun mailarik handienari dagokio; 2. maila, maila ertain bati eta 3. maila neurria garatzeko erantzukizun mailarik txikiena duenari dagokio. Azken maila hori ez da maiz agertzen aurkeztutako egituran.
- Neurri bakoitzak urteko plangintza bat ere dauka lotuta.

BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana

Ekintzen zenbakiaren bidez, atxikita dauden ardatza eta ildo estrategikoa identifikatzen da. Informazio hori taula honetan jaso da, adibide gisa:

ARDATZA.

ILDO ESTRATEGIKOAK:								
HELBURUAK:								
1.H.								
2.H...								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILAK/ZUZENDARI			URTEEN				
	TZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
1.N.								
2.N.								
3.N.								

Guztira 80 neurri dauzka, zenbait operatibotasun mailatakoak, ardatzen eta ildo estrategikoen arabera. Azken horiek behar bezala hierarkizatuko dira egingo diren urteko programazioetan.

Sail guztiek parte hartzen dute “Gobernu ona” eta “Zaintzen kultura eta antolaketa berria” ardatzetan. GOFE protagonista da “Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk” III. ardatzean. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak ere eginkizun oso aktiboa dauka ardatz horretan. “Emakumeen ahalduntzea” ardatzean, zuzendaritza guztiek parte hartzen ez badute ere, sail gehienen parte-hartze nahiko zabala dago.

10

Neurrien eta ardatzen edukiak errazago irakurtzeko zuzendaritzak nahiz ALHn dauden kanpoko entitateak eta erakundeak identifikatzen dituzten siglak erabili dira:

AFako zuzendaritzak eta erakundeak		ALHko entitateak eta erakundeak	
Nekazaritza Zuzendaritza	NZ	Berdintasunerako Foru Kontseilua	BFK
Komunikazio Zuzendaritza	KZ	ALHko Emakumeen Mugimenduak	EM
Lurralde Oreka Zuzendaritza	LOZ	ALHko enpresa erakundeak	EE
Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza	EKKZ	Gasteizko Udala	GU
Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza	FAZ	Kuadrillak eta Udalerriak	K/U
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza	EMTSZ	Kuadrillak, Udalerriak eta Kontzejuak	K/U/K
Funtzio Publikoko Zuzendaritza	FPZ	Administrazio Batzordeak	AB
Ogasun Zuzendaritza	OZ		
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza	AMZ		
Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza	IHZ		
Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza	ZOZ		
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	GZZ		
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza	DNKZ		
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	GOFE		
Gazteriaren Foru Erakundea	GFE		
Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua	BZ		
Zuzendaritza Guztiak	ZG		

Ardatz bakoitza kolore jakin batean eta dagozkion siglekin agertzen da errazago identifikatzeko, taula honetan jasotako informazioaren arabera:

ARDATZAK / ILDO ESTRATEGIKOAK ETA NEURRIEN KOPURUA		
I. ARDATZA: GOBERNU ONA - GO (31)	(GO1) EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EGITURAK	7
	(GO2) BERDINTASUNEAN GAITZEKO PRESTAKUNTZA	6
	(GO3) BARNE KUDEAKETA ETA LAN PROZEDURA KOMUNAK	13
	(GO4) POLITIKA PUBLIKOETAKO PARTE-HARTZEA	5
II. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA - EA (22)	(EA 1) EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALERAKO LAGUNTZA	6
	(EA 2) EMAKUMEEN AHALDUNTZE KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA	10
	(EA 3) EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA ardatza	6
III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTA BATZUK - IM (18)	(IM 1) INDARKERIAREN ZUZENEKO ADIERAZPENAK	3
	(IM 2) INDARKERIAREN EGITURAZKO ADIERAZPENAK	9
	(IM 3) INDARKERIAREN ADIERAZPEN KULTURAL ETA SINBOLIKOAK	6
IV. ARDATZA. ZAITZEN KULTURA ETA ANTOLAMENDU BERRI BAT - ZK (9)	(ZK 1) ZAITZEN GIZARTE BALIOA	4
	(ZK 2) ZAITZEKIN ERANTZUNKIDE DEN GIZARTE ANTOLAKETA BAT	5
NEURRIAK GUZTIRA		80

11

II. ATALA. PLANAREN MUINA

II.1. IV. PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak esku-hartze publikorako hartzen duen ikuspegiaren oinarriak zazpi printzipio gidari hartzen ditu kontuan. Printzipio horiek proposatutako ekintza gidatzen duen esparru filosofikoa dira, hots, orrialde hauetan zehazten den ekintza estrategikoa garatzeko behar diren baldintzak.

Orain azalduko diren zazpi printzipio gidarien abiapuntua ALHko errealitate linguistikoa aitortzea eta hari arreta jartzea da, hizkuntza ofizial bi elkarrekin bizi baitira han, euskara eta gaztelania. Halaber, zentzua dauka lurralde kohesioa bermatzeko beharrezanetik, Arabako landatartasunaren bereizgarriak oinarri hartuta.

PARADIGMA FEMINISTA

Feminismoa eta haren korranteak, emakumeen eta gizonen arteko harremanen eraldaketa eskatzen duen teoria gisa, dira IV. Planaren oinarria. Horregatik, paradigma feminista bere egiteko, emakumeen berdintasunaren kausa dimentsio politiko gisa jarri behar da. Halaber, politika publikoetatik begirada zabaldu behar da, kontzepzio, balio, ezaguera, jardunbide eta esperientzia feministen pedagogia bat egiteko, emakumeen aurkako bereizkeriak eta indarkeriak ezabatzeko bide gisa eta pertsona guztien berdintasuna eta herritartasun osoa sustatzen duten bestelako egituren aldeko apustu irmo gisa.

12

GENERO IKUSPEGIA ETA ELKARGUNEAK

Genero ikuspegiaren bidez, emakumeek eta gizonak bizi eremu guztietan dituzten errealitate desberdinak aztertu eta ikusgai bihur daitezke, horrexegatik, IV. Plana gidatzen duten printzipio gidarietako beste bat da. Ikuspegi hori genero teoriarik eta paradigma feministarik oinarritzen da, eta politika publikoen neutraltasuna zalantzan jartzea ahalbidetzen du. Izan ere, askotan, itxura batean euren eraginak emakume eta gizonentzat berdinak balira bezala garatzen dira baina, egiatan, emakumeak baztertzeko dituzten botere harremanak eta gizarte rola betikitzen dituzte.

Ikuspegi osoago batetik, ALHko emakumeen aniztasunaren aitortzea abiapuntu hartuta, IV. Planak elkarguneak ere ezartzen ditu printzipio gidarien artean; izan ere, genero ikuspegiarekin batera, ezinbestekoak dira haiek patriarkatua erreproduzitzeko mekanismoak indargabetzeko. Beraz, Plan honek jasotzen dituen ekintzak, ahal den neurrian, generoaren eta beste desberdintasun batzuen elkarguneak hartuko ditu kontuan. Desberdintasun horien artean daude, besteak beste, adina, hizkuntza, sexu identitatea eta joera, dibertsitate funtzionala, etnia, jatorrizko herria, bizitzen den ingurunearen landatartasun maila. Izan ere, bereizkeria anizkoitzeko egoerak dakartzate halakoek.

BERDINTASUNA GIZARTE ETA BANAKO BALIO GISA

Balioak aldatu gabe, berdintasuneranzko eraldaketa ezinezkoa da. Horregatik, IV. Planean proposatzen diren neurri guztien abiapuntua da emakumeen gutxiespenari eta mendekotasunari eusten dieten gizarte balioak, nahiz gizonen nagusitasuna eta ospea betikitzen dituzten gizarte balioak daudela eta haiek denak indargabetu eta ezabatu behar direla berriak eraikitzeko. Prozesu hori ezinezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasuna gizarte –berdintasuna bermatzeko behar diren mekanismo publikoak egonda- eta banako –euren subjektibotasunean, gizonak eta emakumeak elkar berdintzat jo eta hartuta- balio gisa garatu gabe.

AURREKONTU ETA BALIABIDE BERMEA

Aurrekontu eta baliabide bermearen printzipioak, emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko engaiamendua eta borondate politikoa gauzatzea ahalbidetzen du. Urteko aurrekontu errealistatik gabe, IV. Plana indarrean egongo den urte guztietarako, eta baliabideak helburuak eraginkortasunez betetzeko era egokian esleitu gabe, lan plan honek ez luke lortuko aurreikusitako eragina.

EBALUAZIOA AFAREN KULTURAREN PARTE GISA

Politika publikoen ebaluazioaren kultura egoteak gardentasuna eta kontuak ematea bermatzen ditu, horrexegatik IV. Planaren printzipio gidarietako beste bat da; izan ere, hura ezarrita, ALHko herritarrek eragiten dieten prozesu eta erabakietara iritsi eta ezagut ditzakete. Ebaluazioaren kultura ezartzea gobernu onaren barruan sartzen da eta, aurreikusitako ekintzak etengabe hobetu ahal izateko prozesuak gertatzea ez ezik, ALHko politika, ekonomia eta gizarte eragileek nahiz emakumeek eta gizonen IV. Planaren aurrekontuari, kudeaketa ekonomikoari, garapenari eta eraginari buruzko behar beste informazio ulergarria edukitzeko eskubidea barneratzea ahalbidetzen du.

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA ELKARLANA

AFAko Sail, foru sozietate eta erakunde autonomo guztiek daukate erantzukizuna emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Erakundeen lankidetzeta eta berdintasunarekiko engaiamendu hori Aldundiaren kulturaren bertan sartu behar dira; hortaz, sail edo erakunde bakoitzak bere eskumeneko diren IV. Planaren jarduerak ezagutu eta bere egin behar ditu, haien garatzeko behar diren baliabideak eta langileak jarriz. Printzipio gidari hori beteta, berrikuntza eta bikaintasuna lortuko dira AFaren berdintasunaren arloko kudeaketan.

13

EMAKUMEEN ETA HAIEN MUGIMENDUEN PARTE-HARTZEA ETA AINTZATESPENA

Demokrazia berdintasuna lortuz garatzeko emakumeen eta haien mugimenduen parte-hartzea behar da, eragiten dieten erabakiak sortzen eta hartzen diren esparruetan egon behar dute.

Halaber, ekarpen horiek aintzatetsi behar dira, presentzia horren ondorioz emakumeek eta haien mugimenduen politiketan eragin dezaten. Horretarako, behar diren bideak sortu eta emakumeen eta haien mugimenduen ahalduzko pertsonak, kolektibo eta soziopolitikoko prozesuei lagundu behar zaie. Azken batean, ahotsa eman eta ahots horrek zilegatasuna izan behar du.

II.2. XEDEA ETA HELBURUAK

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren **xedea** Arabako Foru Aldundiak 2016-2020 epean politika publikoetatik berdintasuna bultzatu ahal izateko lan estrategia global bat egituratzea da, hurrengo plangintza aldian, Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Arau bati heldu ahal izateko baldintzak sortuz eta oinarriak ezarriz.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa AFaren politika orokorretan sartzea **indartzea eta finkatzea**, gizarte eredu eraldatzeko tresna eraginkorra izan daitezen eta herritartasun eskubideak pertsona guztiei bermatzeko.
- AFAko erakundeen kulturari **aldaketa bat bultzatzea**, emakumeen eta gizonen berdintasuna haietan egon dadin.
- “Ardatzen bidez (“Gobernu ona”, “Emakumeen ahalduntzea”, “Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk” eta “Zaintzen kultura eta antolaketa berri bat”) ALHn emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun eta bereizkerien adierazpen batzuetan **eragitea**, haiek ezabatzen laguntzeko.
- Politika publikoetatik egindako esku-hartze ororen helmuga emakumeen ahalduntzea izatea **ahalbidetzea**.
- **Lurralde oreka eta toki garapen jasangarria lortzen laguntzea**, Arabako Lurralde Historikoko alde landarrenarentzat pentsatutako berdintasun politiken diseinuari bereziki helduz.
- Lan esparru errealista, posibilista, garden, neurgarri baina ez finalista **ezartzea**, aldaketa prozesuak sortu eta emakume eta gizarte mugimenduen ekarpenetatik ikasi eta hobetzeko.

14

II.3 BERDINTASUNERANZKO ERALDAKETARAKO ESKU-HARTZE EREMUAK

II.3.1 GOBERNU ONA

Gobernu onaren kontzeptua ez da berria eta Plan honetan Arabako Foru Aldundian eta Aldunditik emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politika publikoak garatzeko proposatzen den tresna da. Gobernu onak, gobernagarritasun eredu gisa, zentzu handinahiagoa dauka, IV. Planaren helburuak gaingaitzen dituena; izan ere, bat dator giza garapenarekin eta haren bereizgarria boterea berdintasuna, eraginkortasuna eta efikazia, gardentasuna, kontu ematea, gaitasunen eraikuntza, gizarte zibilaren parte-hartzea eta legezkoatasuna bermatuz erabiltzea da, politiken eskura garapen ekonomiko eta sozialerako behar diren baliabide guztiak jarriz.

Testuinguru horretan, gobernu onak Plan honetan aurkezten den ekintza estrategikoa nola gauzatuko den azaltzeko balio du; izan ere, tresna gisa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ezinbesteko hiru tresna integratzea ahalbidetzen du:

- **Konpromiso politikoa.** AFaren programak, prozedurak eta egiturak eraldatzeko prozesu bati segida eman eta hura finkatzen laguntzeko, borondate eta konpromiso politikoa, eta berdintasuna lehenesten duen eta, ondorioz, bere agenda edo ekintza estrategikoaren barruan barneratzen eta sartzeko modu publiko bat behar dira. Horretarako, konpromiso politikoa aurrekontu konpromiso bihurtu behar da; izan ere, berdintasunaren arloko berariazko esku-hartze planifikatu orok aurreikusitako aldaketak ezartzea bermatuko duten aurrekontu sailak eskatzen ditu.
- **Generoko gobernamentua eta *mainstreaming*.** Gobernamenturako emakumeen eta gizonen berdintasuna erabakiak hartzean, nahiz erabaki horiek gauzatzeko prozesuetan sartu behar da. Gobernatzeko modu berri horrek dauden nahiz erabaki horiek gauzatu ahal izateko sortzen diren

BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana

egitura formal eta informalei eragiten die, baita erabaki eta prozesu horietan nahastuta dauden pertsoneri ere. Ardatz honetako I. eta II. ildo estrategikoei (“Berdintasunerako egiturak” eta “Berdintasuneko gaikuntzarako prestakuntza”, hurrenez hurren), alderdi horiei heltzen diete, ALHko berriazko errealitateko.

Genero ikuspegia Arabako Foru Aldundiaren politiketan pixkanaka sartzea, *mainstreaming* edo genero zeharkakotasuna deritzona, ezinbesteko beste tresna bat da gobernu onerako eta gobernamentuari zuzenean lotuta dago. Estrategia hori sartu beharra nazioarte mailan (Beijingeko Nazioarteko IV. Biltzarren Ekintza Plataforma, 1995), nahiz Europa mailan (Europako Kontseilua, 1999) dago onartuta eta 4/2005 Legeak berak bere artikuluetan jasotzen du.

Plan honen testuinguruan, genero *mainstreaming* gauzatzeko, gutxienez, bi aldaketa mota behar dira:

Alde batetik, antolaketa egiturak eta sistemak berraztertu eta/edo formulatzea, haietatik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun eta bereizkeriei eustea ahalbidetzen duten elementuak erazten laguntzeko. Aldaketa horri batez ere “Berdintasunerako egiturak” I. ildo estrategikoan heltzen zaio, zeinak AFARI eragiten baitaio, erakunde gisa, baita kuadrilla eta udalerriei ere.

Bestalde, genero zeharkakotasunerako AFAREN prozedurak eta jarduerak aldatu behar dira, berdintasunean eragin positiboa izan dezaten. III. ildo estrategikoak, “Barne kudeaketa eta lan prozedura komunak” deritzonak, helduko dio hori egiteko moduari.

- **Demokrazia parte-hartzailea.** Herritarrek, politika publikoen parte izanik, eragiten dieten erabakietan parte hartzea ere gobernu onaren barruan sartzen da. Demokrazia parte-hartzailearen esanahia handinahiagoa bada ere, IV. Planaren barruan hura bultzatzea sartzen da, “Politika publikoetako parte-hartzea” izeneko IV. ildo estrategikoan. Ildo horren helburua, emakumeak erabakiak hartzen diren tokietan ordezkatuta egotea baino gehiago, euren, haien mugimenduek eta herritarren beste erakunde batzuek berdintasun politiken garapenean eginkizun aktibo eta proposatzaileagoa hartzea da. Horretarako, AFAREN eta mugimendu feministen eta/edo emakumeen mugimenduen arteko informazio eta itunerako guneak sortzea proposatzen da.

Amaitzeko, ikustarazi behar da politika publikoak dauden desberdintasunak kontuan hartuz eta haien eragindako emaitzak eta ondorioak identifikatuz eta ebaluatuz planifikatzeko modu berri hori AFAN ez dela hasi IV. Planaren bidez; izan ere, lehenago hasitako lan baten ibilbidea eta ikasitakoak jasotzen ditu.

15

GO 1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EGITURAK									
HELBURUAK									
1.H. Arabako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin daukan konpromisoa handitzen jarraitzea									
2.H. AFAN eta kuadrilletan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko egiturak sortzea eta indartzea.									
3.H. Koordinazio mekanismoak ezartzea genero ikuspegia eraginkortasunez eta pixkanaka ezartzeko.									
4.H. Tokiko berdintasun politikak finkatzen laguntzea, lurraldearen aniztasuna eta haren landatasuna kontuan hartuz.									
NEURRIAK		ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
AFARENTZAT ERAKUNDE GISA PENTSATUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
GO 1.1. Berdintasun Arloari foru administrazioan berdintasun politiken bultzada gidatzeko behar diren giza baliabideak esleitzea		DNKZ GOF	FPZ FAZ						

BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana

GO 1.2. Dauden koordinazio eta lankidetzak egiturak erreformatzea berdintasun politikak ezartzeko.	BZ GOFE	ZG							
GO 1.3. Sail, erakunde autonomo eta foru sozietateetan berdintasuneko egiturak sortzeko, abiarazteko eta ezartzeko estrategia diseinatzea.	BZ GOFE	ZG							
KUADRILLA, UDALERRI ETA KONTZEJUENTZAT	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5	
GO 1.4. AFAK berdintasunaren arloan esku hartzeko eredu definitzea kuadrilla, udalerrri eta kontzejuentzat, eredu berri honetara Berdinbidean egokituz.	BZ	LOZ K/U							
GO 1.5. Sei kuadrillatan berdintasun teknikariak kontratatzea.	LOZ	BZ							
GO 1.6. Berdintasun teknikarien lurraldeko sare bat sortzea.	BZ	K/U LOZ							
GO1.7. Kuadrilla, udalerrri eta kontzejuetarako berdintasunaren arloko diru-laguntza deialdi publikoa birformulatzea, lurraldeko esku-hartze eredu berrira egokituz.	BZ								

GO 2 BERDINTASUNEAN GAITZEKO PRESTAKUNTZA									
HELBURUAK									
1.H. AFAko eta haren erakunde autonomo eta foru sozietateetako langile politikoei eta langile guztiei berdintasunaren arloan behar beste prestakuntza daukatela bermatzea									
2.H. ALHko langile politiko eta teknikoek berdintasuneko prestakuntzarako guneak bultzatzea eta laguntzea.									
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK					
AFARENTZAT ERAKUNDE GISA PENTSATUAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5	
GO 2.1 Berdintasunaren arloko prestakuntza plan bat diseinatzea eta ezartzea. Plan horretan espezializazio maila batzuk sartuko dira, egiten den esku-hartze motaren arabera.	FPZ, BZ, GOFE EetaS		ZG						
GO 2.2 Irizpideak pixkanaka definitzea eta aplikatzea, lan- eskaintza publikoetan, kanpoko langileak kontratatze prozesuetan eta lanbide sustapenekoetan, berdintasuneko prestakuntza meritu gisa balioesteko.	FPZ BZ								
GO 2.3. Berdintasunaren arloko prestakuntza funtzionario berrien harrerarako gidaliburuan sartzea.	FPZ	BZ							
KUADRILLA, UDALERRI ETA KONTZEJUENTZAT	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5	
GO 2.4. Kuadrilla, udalerrri eta kontzejuetako langile politiko eta teknikoentzako berdintasuneko prestakuntza ekintzak bultzatzea.	BZ	K/U LOZ							
GO 2.5. Kontzejuetako emakume hautatuen prestakuntzari laguntzea.	BZ	AB							
GO 2.6. Kontzejuetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko esku-hartze proiektu bat egitea eta ezartzea.	BZ LOZ	AB							

16

GB 3 BARNE KUDEAKETA ETA LAN PROZEDURA KOMUNAK								
HELBURUAK								
1.H. AFaren antolaketako kultura emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lerrotzea								
2.H. Administrazio ekintzek eta prozedurek berdintasunean eragin positiboa dutela bermatzea.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
GO 3.1. Genero inpaktuari buruzko aurretiko txostenak foru araudian, foru planetan eta jarduera esanguratsuetan arautzea.	DNKZ	BZ						
GO 3.2. Hitzarmen eta dirulaguntzetan berdintasuneko klausulak arautzea.	DNKZ	FPZ BZ						
GO 3.3. Sexu aldagaia datuen ekoizpen eta analisisan sartzea arautzea.	DNKZ	BZ						
GO 3.4. Genero ikuspegia, orokorrak diren prozeduretan zein arloko eta zeharkako politikan eta jardueretan pixkanaka sartzea, egindako lanari segida emanik.	BZ	ZG						
GO 3.5. AFaren eskumeneko fiskalitatearen generoko analisisia	OZ	BZ						
GO 3.6. Jarraipen sistema bat diseinatu eta abiaraztea AFako sail, erakunde autonomo eta sozietateetan foru sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeko 5/2015 Foru Araua betetzen dela aztertzea.	FAZ	BZ/ZG EetaS						
GO 3.7. ALHko enpresetan berdintasuneko klausulak betetzen ari direla eta haien aplikazioa izaten ari den inpaktua kontrolatzea.	BZ ZG							
GO 3.8. Genero ikuspegia aurrekontuetan sartzeko prozesuak jarraitzea.	FAZ	BZ/ZG						
GO 3.9. Berdintasunaren Foru Araua egin aurreko lanak garatzea.	DNKZ	BZ						
GO 3.10. AFaren, erakunde autonomoen eta foru sozietateen barne eta kanpoko komunikazioak hizkuntza inklusiboa erabiltzeko jarraibide bat onartzea.	DNKZ	BZ KZ						
GO 3.11. Barne Komunikazio Plan bat egitea berdintasunaren arloko erakunde politika eta jarduerak ikusarazteko eta AFA osoari nahiz haren erakunde autonomo eta foru sozietateei transferitzeko.	DNKZ	BZ						
GO 3.12. AFako, erakunde autonomoetako eta foru sozietateetako langileentzako Berdintasunerako Barne Plan at egin, onartu eta ezartzea.	BZ	FPZ GOFE EetaS ¹						
BG. 3.13. Berdintasunerako Barne Plana langileen artean zabaltzea.	BZ	ZG, GOFE EetaS						

1 EetaS=Erakundeak eta Sozietateak

17

GO 4 POLITIKA PUBLIKOETAKO PARTE-HARTZEA								
HELBURUAK								
1.H. HERRITARREK, GENERO IKUSPEGI FEMINISTATIK, POLITIKA PUBLIKOAK DISEINATZEN, KUDEATZEN ETA EBALUATZEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA.								
2.H. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko aurrerapena dakarten eta berdintasunaren inguruan parte hartzera eta mobilizatzaera gonbidatzen duten mugarririk ikusaraztea								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
GO 4.1. Emakume, gizarte eta herritar mugimenduek berdintasun politika publikoen garapenean eragina izateko bideak jartzea.	BZ	BFK EM	EMTZ					
GO 4.2. Batera hausnartzeko eta ikasteko guneen bidez, AFAko Berdintasun Arloaren eta emakumeen mugimenduen arteko itunak sortzea	BZ	BFK	EM					
GO 4.3. EAE mailako erakundearteko koordinazio esparruetan parte hartzea.	BZ DNKZ							
GO 4.4. Egun esanguratsuak (martxoaren 8a, ekainaren 28a, azaroaren 25a, urriaren 15a eta beste batzuk) ospatzeko laguntza.	BZ	BFK	EM					
GO 4.5. AFAREN antolaketa kulturaren berdintasunaren arloan gertatzen diren aldatetarik ikusaraztea.	DNKZ BZ	KZ ZG						

18

II.3.2 EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzearen kontzeptua, Beijingeko Nazio Batuen Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Biltzarrekoa ez bada ere, han ezarri zen, 1995ean, munduan berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko "premiatzko ekintza" gisa. Horregatik, politika publikoetatik ezin da berdintasunerantz aurrera egin, genero ikuspegitik, emakumeen ahalduntzerako baldintzak sortu eta haien alde egin gabe.

Plan honek, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak bezala, premia ikusten du emakumeen ahalduntzeari, esku-hartze publikoaren etorkizun gisa ez ezik, maila pertsonal eta kolektiboan, eta genero eta gizarte mailan gertatu behar den eraldaketa tresna eta prozesu gisa ere heltzeko. Horregatik, ardatz honek hiru ildo estrategiko dauzka, ALHn ahalduntze maila guztiak bultzatzeko helburuak eta neurriak proposatzen dituztenak:

➤ **I. ildo estrategikoak (1.IE) emakumeen ahalduntze pertsonalari heltzen dio**, hots, emakume bakoitzak bere buruarekin duen harremaneko aldaketei laguntzeari. IV. Planaren helburua ez da emakumeak ahalduntzea, emakume bakoitzak bere burua ahalduntzen baitu. Ahalduntzerako beharrezkoak diren ahalduntzearen alderdi batzuk, hala nola, esaterako, autonomia, autoestimua edo autozainketa, konpontzea eta garatzea bultzatzea bilatzen du, ordea. Laia Eskola, Emakumeen Berdintasun eta Ahalduntzerako Eskola sortzea, IV. Plana jasotzen duen neurrietako bat, ALHko emakumeen ahalduntze pertsonalerako tresna bat da.

➤ **II. ildo estrategikoak (2.IE) emakumeen ahalduntze kolektiboari laguntzea bilatzen du**. Emakumeek partekatzen duten genero identitateari eta izaerari lotuta dago. Harengatik eskubideak dituen gizateriaren erdia dira haiek. Ardatz horrentzat, IV. Planak, zenbait neurriren bidez, EAEko emakumeen elkarte mugimendua legitimatu beharra eta landa ingurunean kalitatezko enpleguaren eta emakumeen enpleguaren sustapena ezartzen ditu.

Emakumeen desberdintasuna eta bereizkeria globala denez gero, ardatz horretan beste herrialde batzuetan emakumeen ahalduntze kolektiboaren alde lan egiteko eta laguntzeko neurriak jasotzen dira, genero zuzentasuna sartzen duten lankidetzak proiektuak bultzatuz eta ALHko eta beste herrialde batzuetako emakumeen erakundearen arteko sareak eta itunak ezarriz.

➤ **III. ildo estrategikoaren (3.IE) ekintzaren ardatza emakumeen ahalduntze sozial eta politikoari laguntzea da**, demokrazia benetan parte-hartzailea izateko baldintza gisa. Emakumeak zenbat eta ahaldunduago, handiagoa izango da politika publikoaren eraldaketan izango duten eragina. Berdintasunerako Foru Kontseilua berraztertzea eta birformulaztea horretarako jasotzen diren neurrietako bat da.

19

EA 1 EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALERAKO LAGUNTZA								
HELBURUAK								
1.H. ALHko emakumeen eta nesken autoestimua, autonomia eta ongizaterako autozainketa konpontzen eta garatzen laguntzea, ikasketaren eta norberaren ezagueraren bidez.								
2.H. Emakumeen genero kontzientziaren garapena indartzea.								
3.H. Araban landatartasuna emakumeentzat bereizkeria eta desberdintasun iturri ez izateko baldintzak sortzea								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
EA 1.1. Arabako emakumeen Berdintasun eta Ahaldunderako Eskola diseinatzea eta pixkanaka ezartzea	BZ	K eta U BFK	LOZ					
EA 1.2. Neska eta nerabeen ahaldunderako programa bat diseinatzea eta pixkanaka ahaldundera	BZ							
EA 1.3. Laia Eskolaren eta ahaldunderako beste eskola batzuen arteko koordinazio, ikasketa eta esperientzia trukeko mekanismoak ezartzea, batez ere Gasteizko Emakumeen Berdintasun eta Ahaldunderako Eskolarekin	BZ	GU						
EA 1.4. Laia Eskola ezartzeko beste sail eta erakunde autonomoekin koordinatzeko eta lan egiteko mekanismoak diseinatzea eta ezartzea.	BZ	EKKZ LOZ AMZ GFE GOFE						
EA 1.5. Landa ingurunean bizi diren herritarren mugikortasun beharrezan, baliabide publikoak beharrezan horretara egokitzearren eta identifikatutako hobetzeko arloak ezartzearen bideragarritasunaren genero analisia, etorkizuneko Eskualdeko Garraio Planaren esparruan.	AMZ	LOZ IHZ BZ						
EA 1.6. Arabako landa inguruneako emakumeen autonomia handitzeko mugikortasun proiektuei laguntzea.	AMZ	LOZ IHZ BZ						

20

EA 2 EMAKUMEEN AHALDUNTZE KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA								
HELBURUAK								
1.H. ALHko emakumeen elkarteak emakumeen ahaldundera laguntzen dioten gune gisa ikusaraztea.								
2.H. ALHko eta beste herrialde batzuetako emakumeen mugimenduei laguntzea, elkarten arteko sareak eta itunak sortzea bultzatuz.								
3.H. Emakumeentzako kalitateko enplegua sortzea bultzatzea eta generoko soldata arrakala urritzea.								
4.H. Emakumeei eta haien gorputzei buruz dagoen gizarte irudi estereotipatu eta matxista desegitea.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
EA 2.1. ALHko emakumeen elkarten eta gizarte eta herritar erakunde eta mugimenduan arteko bahiz udalerrri eta kontzejuetako baterako eta sareko lana errazteko proiektuak eta guneak bultzatzea.	BZ BFK	K/U/K						
EA 2.2. Laia Eskolaren bidez prestakuntza feministako gune bat definitzea eta programatzea.	BZ, BFK							
EA 2.3. Berdintasuna lortzeko helburua duten emakumeen elkarten proiektuentzako laguntza ekonomikoa, kudeaketa bizkorra duten, prozedurak errazten dituzten eta emakumeen eraldaketa eta ahaldundera prozesuak balioesten dituzten berriazko deialdi publikoen bidez.	BZ	BFK K/U						

EA 2.4. ALHko emakumeen elkarreentzako aholkularitza teknikoak laguntza espezializatua behar duten alderdietan.	BZ K/U								
EA 2.5. Lankidetzeta eta esperientzia trukea beste herrialde batzuetako emakumeen erakundeekin foru lankidetzaren bidez.	BZ								
EA 2.6. Landa ingurune emakumeentzako inoren eta norberaren konturako enplegua sortzeko ekimenei laguntzea, toki garapenerako estrategien esparruan.	NZ EMTZ	BZ							
EA 2.7. Emakumeek AFAtik laguntzen edo bultzatzen den enplegurako prestakuntzan, batez ere emakumeek ordezkapen urriegia duten okupazioei lotutakoan, parte hartzea sustatzea eta bermatzea.	EMTZ EE	BZ INDESA							
EA 2.8. Arabako txirotasunaren feminizazioaren errealitateari buruzko diagnostiko bat egitea, proposamenak eta lan ildoak sartuz.	BZ	GOFE							
EA 2.9. AFaren eta enpresa erakundeen arteko lan mahai bat sortzea, berdintasunaren sustapena bultzatzeko.	EMTZ	EE BZ							
EA 2.10. Arabako hedabideek emakumeen irudiari buruz zabaltzen dituzten estereotipoak aztertzeke diagnostiko bat egitea, emakumeen, batez ere nesken eta nerabeen, gorputzen ahaldunderako sentsibilizazio proposamenak, nahiz edertasun eredu anizkoitzen sustapena eta eraikitzea sartuz.	BZ	KZ GFE	DNKZ						

21

EA 3 EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA ardatza

HELBURUAK

- 1.H. Politika publikoen garapenean emakumeen mugimenduen eta teoria eta praktika feministen eragin handiagoa lortzea.
- 2.H. Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa handitzea eta hari laguntzea.
- 3.H. Lidergo femininoko erreferente berriak ikusaraztea eta feminismoak emakumeen eskubideen eraikuntzan duen eragina ezagutzen laguntzea.

NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
EA 3.1. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua osatzen duten elkarten eta erakundeen arteko hausnarketa prozesu bat bultzatzea eta dinamizatzea, haren araudia, helburuak, eginkizunak, eraketa eta politika publikoetan parte hartu eta eragiteko bideak berraztertzeke.	BZ/ BFK							
EA 3.2. Berdintasunerako Foru Kontseilu berria osatzen duten elkarte eta erakundeentzako prestakuntza eta aholkularitza haien gizarte eta politika eragina eraginkorra izan dadin.	BZ	BFK						
EA 3.3. IKTak eta beste komunikazio eta parte-hartze modu batzuk Foru Kontseiluaren dinamiketan sartzea, generoko arrakala digitala kontuan hartuz.	BZ BFK							
EA 3.4. Komunikazio tresna bat diseinatzea ALHn emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko dauden laguntza eta baliabide publikoei buruzko informazio guztia eguneratuta jasotzeko.	BZ							
EA 3.5. ALHko alkatesa eta emakume zinegotzientzako topaketa, hausnarketa eta prestakuntza guneak antolatzeari laguntzea	BZ	K/U/K LOZ						
EA 3.6. Lidergo femininoko beste eredu batzuk eta ALHko emakumeen parte-hartze sozial eta politikoen historia Laia Eskolaren bidez ezagutzea.	BZ	K/U/K LOZ						

II.3.3 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTA BATZUK

Emakumeen aurka eragiten diren indarkeriek giza eskubideak urratzen dituzte. Haien jatorria egiturazkoa denez, indarkeria horietako asko normalizatuta daude, ezkatuta eta oso errotuta gizarte sistema matxista eta sistema batean zeinean, ezabatu beharrean, ikasi eta mantentzen baitira. Arlo horretan aurrerapen asko egin dira, noski, eta esan daiteke, gizartean, une honetan, indarkeriaren muturreko adierazpenak aho batez arbuiatzen direla. Baina egia da, halaber, indarkeriak dinamika anbiguo eta konplexuagoa daukala. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeriei aurre egitea, bizi seguru, aske eta berdintasuneko bermatzeko, joan den mendearen amai aldetik politika publikoen kezketako bat izan da eta hura maila pribatuan konpontzen ez den arazo publikotzat jotzea emakumeen eskubideak eraikitze mugarririk garrantzitsuenetako bat izan da. Bide horretan, mugimendu feminista eta sozialen ekarpenak eta aldarrikapenak funtsezko gakoetako bat izan da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta bereizkeriak agenda politikoetan sartuta egoteko.

Emakumeen aurkako indarkeriak AFaren kezka nagusietako bat ere badira. Horregatik, ardatz honetan, IV. Planak arlo horretako urteetako lan ibilbidea jasotzen du; izan ere, jarduera eredu horretan Aldundiak bere eskumenak dauzka, bai arreta eta oneratzeko zerbitzu espezializatuak ematearen, bai prebentzio eta sensibilizazioaren eremuan. Halaber, indarkeria hori prebenitu eta haren aurka jarduteko dagoen araudiaren esparruan, euskal erakundeek zenbait tresna egin dituzte (akordioak, protokoloak, ebaluzioak, ikerketak, baliabideen diseinua, etab.). Tresna horiek EAEn errealitate hori hobeto ezagutzeko, nahiz esku hartzeko eta arlo horretan dihardutenen artean behar diren koordinazio eta lankidetzarako balio izan dute. 2009an sinatu zen etxe eremuko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima izandako emakumeen arreta hobetzeko Erakundearteko II. Akordioak eta haren jarduteko protokoloak azken konpromiso hori adierazten dute.

Espazio batzuetan emakumeen aurkako indarkeria esapidea gaindituztat jo arren, nazioarteko instantzia eta dokumentuetan jasotzen dena bada ere, errealitateak egiaztatzen duenez, kontzeptu hori lehenago pedagogiarik egin gabe ezabatzeak nahasmendua ekar dezake. Horregatik, Plan honetan ardatz horren izena emakumeen aurkako indarkeriak eta indarkeria matxistak da, afektibotasunaren eta sexualtasunaren zenbait adierazpenen aurkako beste indarkeria modu batzuk ere aitortzen dituelako.

Zer dira emakumeen aurkako indarkeriak IV. Planean? Emakumeen eta nesken aurka, emakume eta neska izateagatik, eragiten diren edo generoaren ziozko bereizkeriaren adierazpen gisa emakume eta neskei neurritz kanpo eragiten dieten, izaera fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko kalteak nahiz pairamenak dakartzaten edo ekar ditzaketen indarkeriak, mehatxuak, larderiak eta hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne. Bestalde, emakumeen aurkako indarkerien adierazpentzat jotzen dira bikoteko nahiz bikote ohiko indarkeria, sexu indarkeriaren adierazpenak, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu eta etxeko esplotazioa, adin goiztiarreko ezkontza, adostua nahiz behartua, emakumeen genitalen mutilazioa, jazarpen sexista eta sexuala, eskola jazarpena, ziberindarkeria eta nazioarteko itunetan jasota dagoen eta emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste indarkeria modu oro. Indarkeria modu horiek Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak ezartzen duen esparrua gainditzen badute ere, Plan honek haiek kontuan hartu behar dituzten zenbait sensibilizazio eta esku-hartze mota dauzkala uste da.

22

Eta beste indarkeria matxista moduak? IV. Planak jasotzen dituen neurriek batez ere emakumeen aurkako indarkerietan jokatzeko bilatzen badute ere, IV. Plan honek, bere neurrien artean, afektibotasunaren eta sexualtasunaren zenbait adierazpenekiko tolerantziarik eza dela-eta, maskulinitasun eta feminitasun eredu hegemonikoak betetzen ez dituzten pertsonenganako gizarte fobia sortzen duten bestelako indarkeria matxista batzuk aitortzen eta jasotzen ditu. Horregatik, homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia edo genero barruko indarkeria ere, harreman heteronormatiboan esparruan kokatzen den indarkeriatik doazen indarkeria moduak izanik, Plan honetan jorratzen dira, III. ildo estrategikoan.

Testuinguru horretatik, ardatz honen edukiak hiru ildo estrategikotan daude egituratuta hauek lantzeko:

- **Indarkerien zuzeneko adierazpenak edo pertsonartekoak** (I. ildo estrategikoa); errazen ezagutzen diren moduak dira eta bistako kanpoko (lesioak eta kalte fisikoak, esaterako) nahiz barneko (autoestimua galtzea, errua eta beste kalte psikologiko batzuk) eraginak daukate.
- **Egiturazko indarkeria**; haren definizioa zabalagoa bada ere, Plan honetan zerbitzu eta baliabide publikoen mugak eta erakundearen arteko koordinaziorik eza direla-eta eragiten dena mugatzen da (II. ildo estrategikoa). Indarkeria horrek biktimizazio bikoitz edo anizkoitzeko egoerak eragiten ditu.
- **Indarkeria kultural eta sinbolikoa** (III. ildo estrategikoa); gizarteak zuritzen eta legitimatzen duena da, oro har ez da indarkeriatzat hartzen, eta familien, hezkuntza sistemaren, hizkuntzaren, hedabideen, lan harremanen eta berdinen arteko harremanen bidez ikasten eta transmititzen da, besteak beste.

23

IM 1 INDARKERIAREN ZUZENENKO ADIERAZPENAK								
HELBURUAK								
1.H. Emakumeen indarkeriek landa ingurunean duten eragina ezagutzea.								
2.H. ALHn indarkeriak jasaten dituzten emakume guztiei osoko eta kalitatezko arreta bermatzea, lueralde eta udal aldeak murriztuz.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
IM 1.1. Kuadrilla mailan ALHn emakumeen aurkako indarkeriek eta bestelako indarkeria matxistek daukaten eraginari buruzko diagnostikoak egitea, hobetzeko arloak identifikatzeko.	BZ	K/U/K						
IM 1.2. Gizarte zerbitzu espezializatuak ematea foru eskumeneko emakumeen aurkako indarkerien biktimen arretarako, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroaren arabera.	GOFE	K/U/K						
IM 1.3. Indarkeriaren biktimentzako egoitza baliabideen sarea abiaraztea.	GOFE							

IM 2 INDARKERIAREN EGITURAZKO ADIERAZPENAK								
HELBURUAK								
1.H. Zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzea, biktimizazio bikoitzak edo anizkoitzak gertatzea ekidinez.								
2.H. Koordinazio mekanismoak sortzea eta jarduteko protokoloak eta prozedurak hobetzea bultzatzea, EAEko etxe eremuko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko II. akordioaren esparruan.								
3.H. Gaikuntzaren bidez, esku-hartze profesionalaren xedea emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboa izateko baldintzak sortzea.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
IM 2.1. ALHko indarkeria matxistaren biktimen eta biktimarioen arretari heltzeko eskumenak dauzkaten erakunde guztiak ordezkaturata dauden erakundearteko koordinazio mahai bat sortzea eta arautzea.	GZZ/ GOFE							
IM 2.2. Arabako Foru Aldundiaren eta GOFeren arteko koordinazio gune bat sortzea.	GOFE/ BZ							
IM 2.3. Adingabearen eta familiaren, nagusien, mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren eremuetan emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako berriazko prebentzio, detekzio goiztiar eta jarduketa protokoloak egin, zabaldu eta/edo aplikatzea.	GOFE							
IM 2.4. Lehenagoko diagnostikoen informazioan oinarrituta, kuadrilla eta udalerrietan erakundearteko tokiko koordinazio protokoloak egin, zabaldu eta/edo aplikatzea.	GOFE BZ K/U							
IM 2.5. Kuadrilla eta udalerrietako langile politikoen eta teknikoaren prestakuntza, batez ere hirigintzari lotutakoarena, erakundearteko tokiko koordinazio protokoloak egin aurreko baldintza gisa.	BZ K/U	GOFE						
IM 2.6. Gizarte arretako espedienteen erregistroa, GOFeren edozein jarduera arlotan, indarkeria matxistagatiko susmoak, eskaerak edo errekursoak bat egiten dutenetan, errealitate horren dimentsioa ezagutu, gizarte arretaren jarraipena optimizatu eta arretaren eragina eta efikazia ebaluatu ahal izateko.	GOFE							
IM 2.7. Gizarte zerbitzuetako zuzeneko arretako profesionalen %100en indarkeriaren arloko gaitasuna hobetzea, dagozkien prestakuntza planen esparruan.	GOFE	ZOZ						
IM 2.8. Aisialdiko begiraleen %100en gaikuntza koedukazioaren eta indarkerien prebentzioaren arloan.	GFE	BZ						
IM 2.9. EAE mailako erakundearteko koordinazio esparruetan parte hartzea.	GOFE	BZ						

24

IM 3 INDARKERIAREN ADIERAZPEN KULTURAL ETA SINBOLIKOAK								
HELBURUAK								
1.H. Gizartean eta erakundeetan gizonek emakumeen aurka eragindako indarkeria modu guztien nahiz indarkeria matxista modu guztien aurkako arbuioa handitzea.								
2.H. Indarkeria mota guztiak mantentzeko eta gizarteratzeko erabiltzen diren gizarte eta kultura ereduak berraztertzen lagundu.								
3.H. Gizonen aldetik indarkerien aurkako jarrera eta arbuio aktiboagoa sustatzea.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILA/ ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA. URTEAK				
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
IM 3.1. Indarkerien arloko prebentzioa, ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza biltzen dituen programa bat diseinatzea eta abiaraztea.	BZ	EKKZ GOFE K/U/K						
IM 3.2. ALHko herritar gazteenek emakumeen aurkako indarkeriei eta bestelako indarkeria matxistei buruz duten pertzepzioa aztertzea.	BZ	EKKZ K/U/K						
IM 3.3. Gazteek indarkeriak ezagutu eta haiei aurre egin ahal izateko tresnak prestatzea eta zabaltzea.	BZ/GFE EKKZ	GOFE						
IM 3.4. Erakundeek bultzatutako indarkeria matxistak prebenitzeko ekimenetan parte hartzen jarraitzea eta haiek finkatzen laguntzea (Beldur Barik eta beste batzuk).	BZ	EKKZ GOFE GFE						
IM 3.5. Gizon nerabe, gazte eta helduak aktiboki eta euren ingurune gertuenetatik emakumeen aurkako indarkerien nahiz beste edozein indarkeria matxistaren aurka agertzeko eta haiek arbuizatzen ekimenak sustatzea eta laguntzea.	BZ	EKKZ K/U/K						
IM 3.6. Sexu eta identitate dibertsitatearen arloko sentsibilizazioa, adinik goiztiarreneetatik LGTBQIen eskubideentzako begirunea sustatzen duten ekintzak bultzatuz.	BZ	EKKZ						

25

II.3.4 ZAINTZEN KULTURA ETA ANTOLAMENDU BERRI BAT

Egungo zaintzen ereduak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta bereizkeriak erreproduzitzen ditu. Gizarteetan lehentasuneko alderdia izatetik urrun, zaintza bizitzeko jasangarritasunerako funtsezkoa delako, lanaren banaketa sexualaren arabera eta emakumeen artean naturalizatuta formulatzen da oraindik. Errealitate hori dela-eta, zaintzea ez da funtsezkoa, zaintzek ez daukate baliorik eta ahal duenak haiek eskuordetzeko aukerarik urrienak dituztenei, hots, baliabiderik gutxien dauzkaten emakumeei transferitzen dizkio. Horregatik, eremu publikoan nahiz pribatuan, zaintzak baldintza oso eskasetan egiten dira. Egungo krisi egoerak, gainera, okerragotu egin ditu baldintza horiek eta ez datoz bat merkatuko batez besteko prezioekin. Zaintzen, txirotasunaren eta bazterketa arriskuaren arteko lotura egiaztatuta dago eta ezin zaio txirotasunaren feminizazioari heldu errealitate hori kontuan hartu gabe. ALHn emakume askori eragiten die, besteak beste, familia gurasobakarren buru daudenei.

Zaintzen krisi testuinguru horretan, haien erantzukizuna barreiatu eta feminizatuta, eta bilakaera demografikoa eta biztanleriaren zahartze gero eta handiagoa dela-eta zaintzak behar dituzten gero eta pertsona gehiago egonda, IV. Planak premisa hauek kontuan hartuta eragitea proposatzen du:

- Politika publikoetara eramateko zaintzen definizio bat aurkitzeko zailtasuna; izan ere, autozaintza, afektuak eta emozioak, harremanak eta pertsonen bizitza eta osasuna egunero mantentzeko kuantifikatzen zailak diren lan asko ere sartzeko zailak dira. Hortaz, abiapuntua da pertsona guztiek behar dituztela zaintzak, ez bakarrik mendekoak.
- Pertsona guztiek behar beste zaintza eta egokiak jasotzeko duten eskubidea.
- Eredu familiakoietan, hala nola ALHn, hain errotuta dagoen agindu kultural hau indargabetu beharra: zaintzak emakumeen "izan beharra"ren parte da. Agindu horrek, emakumeengan nahiz gizartearen ezarrita, osasunaren eta mendekotasunaren arloan gertatu diren murrizketa asko emakumeen ordaindu gabeko lan zama handi eta biziagoaren kontura finantzatzeko balio dio sistemari. Halaber, aitzakia da gizonek, politika publikoek eta enpresek, beste eragile sozial eta ekonomiko batzuekin batera, gizartearen parte izanik zaintzekin daukaten erantzukizuna euren gain ez hartzeko.

AFAK bere eskumenak dauzka zaintzen arloan. Horregatik, ardatz honen bitartez, funtsezko hiru alderditan eragitea bilatu da, zaintzen beste eredu bat ezartzeko:

- Zaintzen eta haien banaketa desorekatuak emakumeen bizitzetan dauzkaten kostuen ikusgaitasuna, gizartearen zaintzek balioa izateko bide, haien erantzukizuna zuzena izateko eta zaintzen beste kultura bat eraiki ahal izateko, denboren gizarte erabilerak eraldatuta eta emakumeek ere zaintzak jasotzeko eta euren burua zaintzeko eskubidea dutela sentitzeko. I. ildo estrategikoak ildo horretatik garatuko diren neurriak jasotzen ditu.
- Pertsonen euren denborarako duten eskubidea; norberaren ongizaterako autozaintzari dago lotuta, norberaren ahalduzko oinarriko alderdi bat.
- Aukera posibleen bilaketa, ALHren ezaugarriak eta baliabideak oinarri hartuta, gizarte antolaketatik zaintzen kudeaketa era kolektibo eta erantzukidean har dadin. II. ildo estrategikoak heltzen dio alderdi horri.

Proposatutako ildo estrategikoen bidez eremu horiei berariaz heltzea izan da irizpidea ardatz honi izena jartzeko; izan ere, erabilitako formulazioa errealista izatea eta aurkezten den proposamenarekin bat etortzea bilatu da.

26

ZK 1 ZAINTZEN GIZARTE BALIOA								
HELBURUAK								
1.H. Zaintzen lan formalak eta informalak ikusaraztea. 2.H. Lanaren sexu banaketan oinarritutako rolek eta estereotipoek zaintza lanen feminizazioan eta ezegonkortasunean nola eragiten duten ezagutzeta. 3.H. Autozainketa garatzea, banako eta norberaren denbora izan eta gozatzearen garrantziari buruzko kontzientzia hartuz.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA URTEAK				
AFARENTZAT ERAKUNDE GISA PENTSATUAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
ZK 1.1. AFAko, erakunde autonomoetako eta foru sozietateetako langileen artean zaintzei lotutako eskubide eta baimenen eraginari buruzko analisi bat egitea, emakumeen eta gizonen ibilbideetan daukan eragina aztertuz.	FPZ BZ GOFE GFE Sozieta teak							
KUADRILLA, UDALERRI ETA KONTZEJUENTZAT	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
ZK 1.2. ALHn zaintza lan formal eta informalak egiten diren baldintzen azterlana, haien prekarizazioaren eta feminizazioaren ondorioak azpimarratuz.	BZ	GOFE K/U						
ZK 1.3. ALHko zaintza baliabide publikoen estaldura ezagutu ahal izateko eta hobetzeko arloak, batez ere landa ingurunean, identifikatzeko mapa-diagnostiko bat egitea eta ezagutaraztea.	BZ	GOFE LOZ K/U						
ZK 1.4. Sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak abiaraztea zaintzek biziaren jasangarritasunerako funtsezko elementu gisa duten balio sozial eta ekonomikoa azpimarratzeko.	BZ	EKKZ K/U						

27

ZK 2 ZAINTEKIN ERANTZUNKIDE DEN GIZARTE ANTOLAKETA BAT								
HELBURUAK								
1.H. Erantzunkidetasunetik zaintzen kudeaketan aurrera egiteko ekimenak abiaraztea 2.H. Herriarren ongizate eta bizi kalitate handiagoa, zaintzaren etika garatuz eta finkatuz.								
NEURRIAK	ERAKUNDEAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK			PLANGINTZA URTEAK				
AFARENTZAT ERAKUNDE GISA PENTSATUAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
ZK 2.1. AFArekin kontratatu eta euren berdintasunaren arloko planen edo plangintzaren esparruan zaintzen erantzunkidetasuna hartzen duten enpresak aintzatestea.	BZ	ZG K/U						
ZK 2.2. Dauden familia zaintzaileei laguntzeko taldeen bidez, mendeko pertsonen familia zaintzaileei laguntzeko ekimenak bultzatzea.	GZZ	BZ						
KUADRILLA, UDALERRI ETA KONTZEJUENTZAT	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	1	2	3	4	5
ZK 2.3. Erakunde publiko eta pribatuak ordezkatuta dauden toki eremuko lantaldeak antolatzea, batera, gizarte itunetik, zaintzak erantzunkidetasunez kudeatzeko lurralde bakoitzari egokitutako neurriak diseinatzeko.	BZ	K eta U						
ZK 2.4. Arabako landa inguruneke enpresek zaintzen erantzunkidetasuna hartzeko ekintzak bultzatzea.	BZ	LOZ AB K/U						
ZK 2.5. Foru administrazioan nahiz ALHn zaintzen eredu tradizionala eraldatuko duten aitatasunak garatzea bilatzen duten ekimenak bultzatzea eta laguntzea.	BZ	AB K/U LOZ						

III. ATALA. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA

II.2. SARRERA: MUGIMENDUKO PLAN BAT

Ikasitako ikasbideak eta pilatutako esperientzia abiapuntu hartuta, IV. Plan honetan proposatzen den kudeaketa ereduak jarduera finalisten zerbitzurako zeharkako ekintza handi baten eta gobernu onaren berezko tresna bat moduan geratuko da txertatuta.

Eredu horren helburua ez da maila tekniko eta politikoetan koordinatzeko egituren alborakuntza hutsa sortzea; aitzitik, elementu bizia izan nahi du, genero ikuspegiaren zeharkakotasunean aurrera egin ahal izateko eta, aldi berean, eremu guztietan berdintasunaren alde erabakitako berariazko jarduerak garatzeko.

Hortaz, egiaztatutako mekanismoen egokitzapenean eta hobekuntzan oinarritutako **egitura malguak** ezartzea proposatzen du, IV. Plana aurrera eraman ahal izateko, Sail bakoitzak gauzatzeko daukan erantzukizuna argi ezartzeko logikatik. Azken batean, helburua foru administrazio osoa, sail guztiguztiak, salbuespenik gabe, eskudun diren aldetik, Planaren partaide izan ahal izateko egiturak sortzea da; izan ere, ALHrako berdintasunaren arloko estrategia politika bat aplikatu nahi da. Ildo horretatik, kudeaketa ereduaren partetzat jotzen dira ALHko toki erakundeekin (kuadrillak eta udalerrriak), Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoekin, Emakunderekin eta Eusko Jaurlaritzako beste erakundeekin erakundearteko koordinaziorako eraiki behar diren egiturak edo, gutxienez, "zubiak" ere.

Bestalde, eta **IV. Planak daukan asmo eraldatzailea** kontuan izanda, haren ekintza guztiak diseinatzeko erabili den denborazko eskemari esker, hura garatu bitarteko lehentasunak defini eta ezar daitezke, **helburuak eta emaitzak zenbait epetan lortzea** ezarri ahal izateko. Horri esker, urteko oinarria duen **programazio bizkorreko** logika bat aplikatu ahalko da, planaren jarduera guztiei dagokienez (makro maila), jarduera batzuen konplexutasunaren eta denborazkotasunaren arabera (mikro maila) zenbait denborazko oinarri erabilita. Hala, ekintzarik konplexuenei eman ahalko zaien "**proiektu estrategiko**"ko tratamenduak denboretan eta baliabideetan behar diren garapena eta arreta ahalbidetuko ditu.

Azkenik, lan eskema horri dagokionez, planaren jarraipena eta ebaluazioa, era berean, bi maila horietan (makro eta mikro) egingo dira, a priori hura abiaraztea ahalbidetuko duten adierazle handiak eta mekanismoak baino ezarri gabe.

III.2. KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA EGITURAK: GENEROAREN OINARRIZKO ARKITEKTURA BATERANTZ


IV. Planak, AFAk berdintasunarekin duen konpromisoa izanik, esanenez, zenbait egitura behar ditu haren **globaltasun** asmoa bermatzeko, zeharkako genero ikuspegi eremu eta erabaki guztietan sartzea sustatzen dela bermatzeko. Hala, **berdintasunaren arloko organo eskudunak, hots, Berdintasun Zerbitzuak (Ahdun Nagusiaren Kabineteko Zuzendaritzaren mendekoa)** beretzat gordetzen du Planaren garapenaren **sustatzailea eta bultzatzailea** izatea, **erantzunkidetasun eta partaidetzako** eskema batean, hura gauzatea sail guztiekin partekatuz.

Testuinguru horretan, ezartzeko eta koordinatzeko egituren bidez, foru administrazioaren maila eta eskumen guztiak integratu nahi dira, AHLko administrazioekiko harremana ere txertatuz, kontuan hartuta, eskumenei nahiz eginkizunei dagokienez, administrazio konplexu eta anizkoitz baten

28

errealitateari erantzun behar diola eta bere jardunbideak benetako denbora eta jardueri egokitu behar dituela, sail bakoitzaren erantzukizunak argi identifikatuta.

Hala, eta AFaren funtzionamendu eskema oinarri hartuta, koordinazio orokorreko bi egitura egonkor handi eta egitura espezializatuak planteatzen dira, maila politikoa eta teknikoan eskema honen arabera erlazionatuta:



29

Koordinazio eta kudeaketako egitura dinamiko hori eratzen duten **piezek**, eskeman erakusten denez, argi identifikatutako zenbait eginkizun dauzkate, baina haien azken definizioa Plana ezarri eta programatzeko prozesuan bertan sartuko da.

- **Berdintasun Zerbitzua:** Plana bultzatzen eta sustatzen duen organoa izanik, elkarrizketa maila bat izango du parte hartzen duten egitura guztiarekin, eta Planaren egitura guztiarekin orokorrean koordinatzeko, aholkatzeko eta laguntzeko lanak egingo ditu. Halaber, lotura izan beharko du erakundearteko koordinaziorako eta **bereziki kuadrillekin eta udalerriekin tokiko berdintasun politikak garatu eta bultzatzeko egin behar den lanean**, zenbait tresna erabiliz, hala nola **Berdinbidean**². Ildo horretatik, kuadrillekin eta haietako udalerriekin koordinatzeko esparru pribilegiatua **AFak kuadrillentzat berdintasuneko teknikariak**, era bilateralean, nahiz **ALHn berdintasuneko teknikarien sarea sortuz, jarrita** sortuko den harremana izango da.

Halaber, Berdintasun Zerbitzuaren eginkizuna izango da Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoekin, nahiz beste lurralde erakunde espezializatu batzuekin, hala nola zenbait eremutan, hala nola emakumeen aurkako indarkerian, erakundeen artean koordinatzeko egiturekin, behar diren harremanak ezartzea. Halaber, eta gizarte zibilaren eremuan, Berdintasun Zerbitzuaren eginkizuna izango da **Berdintasun Foru Kontseiluarekin** eta ALHko gizarte zibilaren beste eragileekin koordinatzeko mekanismoak ezartzea.

² 5.000 biztanletik beherako udalerriei berdintasun politikak bultzatzeko aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzua.

- **Sailarteko batzordea:** Dauden egituretan oinarrituta, sailarteko batzorde horrek talde bereizi bi izango ditu. Talde horiek, edonola ere, koordinatuta jardungo dute, funtsean Berdintasun Zerbitzuak egindako zeharkako lanaren bidez:
- ➔ **Sailarteko Batzorde Politkoa (SBP)**, sailarteko zuzendaritzek osatuta, INDESA eta GFE barne. Haren helburua Planaren garapenaren koordinazio globala da, eta haren eginkizun nagusia jardueri buruzko **erabaki politikoak eta estrategikoak** hartzea da. Haren zeregin nagusiak hauek lirateke: Planaren gauzapena bermatzea, politikak genero ikuspegitik egiteari lotzea erraztuz, eta Planaren garapen teknikorako behar diren baliabideak jartzea. Talde hori bi urtean behin bilduko da eta gobernu kontseilua informatuko du zuzenean, Planaren kontu estrategikoen jarraipenerako. Kasuan kasu, kanpoko adituek parte har dezakete batzordean.
- ➔ **Sailarteko Batzorde Operatiboa (SBO)**, zuzendaritzetan zeharkako eskumenak dituzten zerbitzu buruzagitzek (idazkaritza teknikoak) osatuta. Planaren jarduerak koordinatu eta euskarri emango die talde horrek, programazio globalak garatuz. Aldi berean, genero ikuspegia administrazio prozedura eta ekintzetan sartzeko behar diren informazioa eta aholkularitza emango ditu, **proiektu orokor** gisa definitu dena. Bi urtean behin bilduko da batzorde hori, SBPrek bilerak prestatzeko.
- ➔ Bileretarako arestian ezarri den aldizkakotasuna **ad hoc lantaldeak**, proiektu estrategikoak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen direnak, sortu ahala alda daiteke, esaterako, araudia garatzean genero inpaktuaren lehenagoko ebaluazioa orokortzean.
- **Ad hoc lantaldeak.** Egikaritzeko talde horiek Planean aurreikusitako jardueren **gauzapen eta jarraipenaren zuzeneko erantzukizuna** izango duten egiturak dira, eta izen hori eman zaie berariazko proiektu orokor nahiz arloko arduratzeko eratuko liratekeelako. Talde horien lan egiteko gaien adibidea litzateke, esaterako, genero ikuspegiko aurrekontuak egitea. Haien emaitzak erakunde osoarentzat orokortu litezke. Talde horiek Berdintasun Zerbitzuak eta SBOren dagozkien pertsonak koordinatuko dituzte. AFAko arloek hainbat eraketa eta konplexutasun dauzkaten gero³ gauzapenean zuzenean jardun behar duten zerbitzuen parte-hartzea (arduraduna eta generoan espezializatu/prestatutako langileak) bermatu beharko da, SBOren ordezkariarekin batera (Idazkaritza Teknikoko arduraduna), arlo zehatzaren mailan garatutako programazioa ezartzea bermatzeko. Ad hoc lantalde horiek **Genero Unitateen** muina dira, IV. Plan honen esparruan ezartzea aurreikusita dagoena.

30

³ Ikus AFAko sailek indarrean duten egitura III. Eranskinean.

III.3 PROGRAMAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA: PROZESU DINAMIKO BATEN TRESNAK

IV. Planaren ildo estrategikoen eta jardueren diseinuak mapa zabala eratzen du. Haren gainean, errealitatearekin “engaiatutako” programazio bat garatu beharko da, hura ezartzeko baliabideak eta engaiamendu politikoa behar baitira.

Ildo horretatik, programazio, jarraipen eta ebaluazioko mekanismoak **prozesu dinamiko** batean jarraitu behar diren gidalerro gisa planteatzen dira. Prozesu hori urtero berrikusi behar da, Planak esku hartzen duen eremuetan gertatutako benetako aurrerapenak egiaztatzeko. Horri esker garatuko den programazioa jarraipeneko informazioak berrelikatuko du, ekintza batzuek jarraitu behar dutenez edo beste batzuk birbideratu behar diren definituz, IV. Plana, berezko xede gisa izan beharrean, berdintasunaren arloan aurrera egiteko **tresna** gisa kokatuz.

FUNTSEZKO PROZESUAK: KOMUNIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA PRESTAKUNTZA

Plana gauzatzeko bizitasuna, neurri handi batean, **funtsezko prozesuak**, hala nola **komunikazioa**, **parte-hartzea** eta **prestakuntza**, ezartzearen mende egongo da. *Sine qua non* baldintza dira Planaren eremu guztietan aurrerapen eraginkorrek egiteko ⁴. Hortaz, koordinazio egiturek marrazten duten generoko “oinarrizko arkitektura”rekin batera (diagrama honetan erakusten denez), prozesu horiek zeharka bideratuko dira eta gaikako planen forma hartuko dute. Haiei esker, oinarrizko arkitektura hori indartu eta hobeto oinarritu ahalko da, elkarrizketa maila guztien, barnekoen nahiz kanpokoaren, arteko harremana indartuz eta hobetuz, ezarritako helburuak lortzeko.

31


KOMUNIKAZIO PLANAREN OSAGAI NAGUSIAK

Koordinazio eta elkarrizketa instantziei lotutako barne nahiz kanpoko **komunikazio plan global** bat hartzeak, plana dinamizatzekeo tresna erabilgarria eta beharrezkoa izan ez ezik, berdintasunari buruzko diskurtsoak eta pentsamenduak arazo argi eta dimentsionatuei erantzuten dieten neurri eraginkor eta zehatzen inguruan garatzea ere ahalbidetzen du, desberdintasuneko egoerak hutsaltzea edo minimizatzea bilatzen duten diskurtsoak urrunduz, eta “berdintasunaren lilura” deritzona ezabatzen lagunduz.

Barne ikuspegi zorrotzetik, eta ondoren aurkezten den helburuen grafikoan erakusten denez, komunikazioa koordinazio egiturek parte hartzeko eta, beraz, **Planaz “jabetzeko”** oinarrizko tresna ere bihurtu behar da, parte-hartze hori ahal den neurrian AFAko langile guztiei zabalduz.

Kanpoko komunikazioari dagokionez, elkarrizketa instantzia guztiak biltzen dira, arreta berezia jarriz **kuadrilla, udalerrri eta kontzejuen** egitura politiko eta teknikoei. Komunikazio eta parte-hartze kanal biziagoak ezarri beharko dira haiekin ere, **Berdintasun Foru Kontseiluarekin** gertatzen den bezala.

⁴ Prozesu horiek, bestalde, 4/2005 Legearen 10. artikulua oinarrian daude.



Informazioa **parte-hartzea** egoteko lehen baldintza dela oinarri hartuta, parte-hartze prozesuak ere, “helburu horretarako gaitutako espazio” gisa definituta, Komunikazio Planaren esparruan hartu dira aintzat, informazioa emateari eta parte-hartze hori deitzeari dagokienez, behintzat. Parte-hartzeko espazio horien azken definizioa urteko programazioak koordinazio eta kudeaketa egituren jarduerari dagokienez, nahiz Berdintasun Foru Kontseiluaren aldizkakotasunari eta edukiei dagokienez, egiteko moduaren arabera izango da.

Ezaugarri horiek dituen zeharkako plan bat bideratzeko, programazio maila guztiei osagai hauek, jarduera horren komunikazioaren edukiei eta formei lotuta, izango dituen plangintza egitura bana eman beharko zaie:

- Komunikazio premia eta asmoak (kasuan kasu): Informazioa / parte-hartzerako informazioa
- Instantziak pertsonak / jasotzaileak: Kanpokoak, barnekoak. Gauzapenean inplikatuak / ez inplikatuak
- Mezuak eta komunikazio kanalak

Item horiek, hurrengo atalean deskribatu denez, programazio eta jarraipeneko beste osagai bat bezala sartuko dira, haien produkzioa eta banaketa ahalik eta gehien automatizatu ahal izan daitezten.



PRESTAKUNTZA PLANAREN OSAGAI NAGUSIAK

Komunikazioarekin batera, **generoko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko prestakuntza** funtsezko beste osagai bat da Berdintasuneko Planaren esparruan, eta funtsezko tresna da hura ezarri eta zabaldu ahal izateko. Langile espezializatuak edukitzea ezinbestekoa bada ere, beharrezkoa da, halaber, berdintasunarekin engaiatutako erakunde batean lan egiten duten pertsona guztiek ezaguerak eta trebeziak eskuratzea. Kultura aldaketatik harago, generoa “**gaitasun arlo**” gisa sartu behar da, **egiteko modu berri** bat sortuko duen beste edozein baldintza bezala.

Zio horiek direla-eta, funtsezkoa da AFAko langile guztientzako (langile politikoak barne) **prestakuntza plan** bati ere zeharka heltzea. Prestakuntza plan hori Planaren jarduerak gauzatzen hasten den egunean hasiko da, eta Kabineteko Zuzendaritzaren koordinazioa izango du, Berdintasun Zerbitzuaren bidez, eta Sailarteko Batzordeak (Batzorde Politikoak nahiz Batzorde Operatiboak) parte hartuko du. Aldundian prestakuntzaren ardura duen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak ere berariaz parte hartuko du.

Prestakuntza plan orotan ohikoa denez, lehenik **prestakuntza beharrianak identifikatzeko fase** bat izango du, eta haren ondoren beharrianen analititik ateratako prestakuntza prozesuak abiaraziko dira, **Plana garatu eta ezartzeko lehenetako araber**a. Hala, beharrianen lehen diagnostikoan, lehenetako emango zaie koordinazio egituretan zuzenean diharduten langileen prestakuntza beharrianei.

Paraleloki, AFAko langile maila bakoitzari zuzendutako **oinarrizko** prestakuntza beharrianei –hala nola berdintasun politikei buruzko oinarriko kontzeptuak- erantzuteko prestakuntza ekimenak nahiz **teknikarien zeharkako** prestakuntza beharrianei –hala nola sexuen arabera bereizitako datuen erabilgarritasuna eta erabilera edo genero inpaktuaren ebaluazioaren oinarriak- erantzuteko ekimenak garatuko dira.

Beharrianak diagnostikatzeko eta prestakuntza eskaintza ezartzeko fasea amaitutakoan, prestakuntza plan hau aldi berean behin berrituko da, eta etengabeko ebaluazioa egingo zaio, batez ere, partaideek hautematen dituzten erabilgarritasuna eta egokitasuna zehaztu ahal izateko. Ebaluazio hori urtero egingo da eta hurrengo urteko programazioa ezartzeko balioko du.

PROGRAMAZIO, JARRAIPIEN ETA ETENGABEKO EBALUAZIOKO MEKANISMOAK: PROIEKTUAREN ZIKLO OSOA

Proiektuaren ziklo osoaren metodologia izenez ezagutzen denaren arabera, programazio, jarraipen eta ebaluazio prozesuak, IV. Planaren esparruan, elkar berrelikatzeko moduan egingo dira, ezaugarri hauek dituen eskema baten arabera:



BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana

Ikusten denez, **hasierako programazioa**, jarduerak urteko edo zenbait urtetako ekintza gisa berezita, ezartzen denetik, **jarraipen eta etengabeko ebaluazio** prozesu bat ezarriko da, urteko programazioak berrelikatzea ahalbidetuko duena, denbora tarte horretan nahiz zenbait urtetan gauzatzen diren ekintzen emaitzak kontuan hartuz.

Azken batean, ebaluatzeko gaitasuna "instalatzea" ahalbidetu eta ebaluazioaren begirada eta kultura gauzaperari berari lotuta txertatuko duen **jarraipen eta ebaluazio sistema** bat ezartzen datza. Kontua ez da azken balantzeak egin eta egindakoaren informazioa gerora jasotzea, jarraipena gauzatzeko prozesuan bertan txertatzea ahalbidetuko duen informazioa bildu eta tratatzeko mekanismoak sortzea baizik. Horretarako sistema informatiko partekatuko eta sartzeko erraza eduki beharko da, bertan ekintzei buruzko informazioa era etengabean lotzeko.


Halako eskema batean, hasierako programazioa osagai hauek izango dituen analisi eta plangintza prozesu batean garatuko da:

- **Ekintzen ezaugarrien definizioa euren aldizkakotasunaren eta izaeraren arabera:** Adierazi denez, IV. Planaren garapena eta ezarpena programazio maila bitan egituratuko da. Maila horiek, era berean, jarraipen egitura bat definitzen dute. **Makro maila** bat, Plana gauzapereneko tresna globalizat hartu eta urteko oinarrian garatzen dena, eta **mikro maila** bat, urteko programaziotik harago garatzen diren eta, euren ezaugarriengatik, Planaren barruan proiektu estrategikotzat jo daitezkeen jarduera unitateak kontuan hartzen dituenak. Ildo horretatik, zenbait neurri, hala nola emakumeen aurkako indarkeria eta bestelako indarkeria matxistak desagerrarazteko urteko esku-hartzeak, makro mailako jarduerak lirateke; izan ere, errepikatzen diren jarduerak dira eta haien garapena jarraipen nolabait kuantitatibotik hurbilago dauden kontuen arabera programatzen eta jarraitzen da (gauzapereneko adierazleak kontuan hartzen dituenak, hala nola arreta jaso duten emakumeen kopurua, edo amaitutako prozesuen kopurua). Beste jarduera batzuk, ordea, hala nola AFAko aurrekontuetan genero ikuspegia ezartzeko prozesua finkatzea, mikro mailaren barruan leudeke, zenbait urtetako jarduera ibilbide baten esparruan ezarrita. Halakoak ezartzeko eta jarraitzeko berariazko hedatze xehea behar litzateke, programazioaren eta jarraipen kualitatiboaren mendekoagoa.
- **Helburu zehatzak eta adierazleak identifikatzea:** Jarduera ildoetarako ezarritako helburu estrategikoak eta adierazleak kontuan hartuz (ikus eranskina) helburu zehatzak eta betetze mailako eta prozesuko adierazleak ezarriko dira, etengabeko ebaluazio prozesu baten jarraipena egitea ahalbidetuko dutenak.
- **Espero diren emaitzak (gauzapereneko adierazleak):** Jardueraren esparruan, "eragitea" espero denaren arabera.
- **Kalkulatutako aurrekontua:** Balizko kostu guztiak eta haien jatorria sartuta. 2017rako, berdintasun politika zehazterako 800.000 euroko aurrekontua aurreikusita dago. Honetaz gain, gainontzeko departamentuek ere beraien aurrekontuetako dirua bideratu dezakete genero ikuspegia beraien politiketan txertatzeko.
- **Erakunde arduraduna/k eta laguntzaileak:** Hemen zehaztasunez identifikatuko dira parte hartzen duten entitateak, laguntzaileak hartutako entitateen parte-hartze mota zehaztuz, kasu kasu, kanpoko entitateen parte-hartzea adieraziz.

34

- **Zeharkako elementuak:** Komunikazioaren eta parte-hartzearen arloan lehen identifikatutako kontuak aztertuko dira hemen, baita, kasuan kasu, jardueraren garapenari lotutako langileen prestakuntza beharizanak ere.

Planaren koordinazio egiturek programazio prozesuetan parte hartuko dute, honelako eskema baten arabera:



35

Esparru horretan, **jarraipen sistemak** funtzionaltasun bikoitza izango du. Alde batetik, informazioa sortuko du, ekintzak gauzatzeko laguntza ahalbidetzeko eta, bestetik, etengabeko ebaluazioaren eta amaierakoaren oinarriak ezarriko dituen informazioa sortuko da.

Gauzapenari laguntzeko lehen funtzionaltasunerako, informazioa lortu eta prozesatu behar da, programazio dokumentuaren ezarpen mailaren bilakaera ezagutzeko eta, aldi berean, dauden arrakastei eta zailtasunei buruz aholkatzeko eta hausnartzeko gune bat eta horretarako ezar daitezkeen gainditzeko mekanismoak sortuko dira. Halaber, gauzapena malgutasunez egokitzeko hasierako plana alda dezaketen balizko aldaketei buruzko erabakiak hartu ahal izateko sistema bat jarri behar da.

Gauzapenetik gertuko instantziak, barnekoak nahiz kanpokoak, arduratuko dira planean jasotako elementuen bilakaerari buruzko informazioa biltzeaz, datu-base erraza erabiliz, eta berdintasun zerbitzuaren ardura izango da urteko txostena sistematizatzea eta aurkeztea.

Plana **ebalutzeko mekanismoak** planaren ezarpenean inbrikatuko dira, emaitzei baino begiratzen ez dien osoko ebaluazio bat egitea ahalbidetzeko. IV. Plan honen ebaluazioa, berez, genero ikuspegiari buruz sensibilizatzeko tresna bihurtzea nahi da, berdintasun politikak zabaldu eta ikusgaiago bihurtzeko mekanismo bilakatuta.

Hortaz, irizpide argiak ezarri behar dira ekintzen gauzapean maila neurtzeko, prozesuari berari lotutako kontuak aztertzen diren bitartean; hortaz, egiten den jarraipenari lotutako ebaluazioak helburu hauek izango ditu:

- Planaren helburuen betetze maila ezagutzea
- Planaren prozesuaren garapena aztertzea

- Ekintzek aurrera jarraituko duten hausnartzea
- Aukera berdintasuna sustatu eta bermatzeko ekintzak behar dituzten beharrian berriak identifikatzea.

Emaitzei eta prozesuei buruzko begirada hori kontuan hartuta, ebaluazioa hiru dimentsioren inguruan egingo da: **prozesua, emaitzak eta inpaktua**

Prozesuaren dimentsioan, Plana garatzeko abiarazitako **baliabideak eta prozedurak identifikatuko** dira. Esparru horretan, besteak beste, kontu hauek aztertuko dira:

- Hasitako ekintzen garapen maila
- Ekintzak gauzatzean aurkitu/hautemandako zailtasun maila
- Zailtasun motak eta hartutako irtenbidak.
- Planaren ekintzetan eta garapenean gertatutako aldaketak haien malgutasunaren arabera

Emaitzen dimentsioan, helburua ekintzak zein mailatan lortu diren identifikatzea izango da eta, **inpaktuaren** dimentsioan, bestalde, helburua kultura aldaketa eta aurrerapen kualitatiboak egiaztatzea izango da, zenbait kontu aztertuz, hala nola AFAk berdintasunarekin duen konpromisoari eta proiektatu eta egindako ekintzei buruzko informazio eta sensibilizazio maila.

36

Prozesuaren eta emaitzen dimentsioa etengabeko ebaluazioaren esparruan identifikatutako mikro eta makro bailetarako txertatuko da eta inpaktuaren dimentsioa, aldiz, batez ere amaierako ebaluazioan aztertuko da.

Ebaluazio mekanismoen ezarpena ebaluazioen plan batean sartuko da, eta ebaluatzeko une eta ekoizpen hauen jasoko ditu:

➤ **Etengabeko ebaluazioa:**

Jarraipen txostenei lotuta, ebaluazio txostenak egingo dira, inplikaturako instantzien ebaluazio ahalmena garatuko duen eskema batean. "Begirada ebaluatzailea" garatuko den prestakuntza planaren funtsezko zatia izango da.

➤ **Amaierako ebaluazioa:**

Etengabeko ebaluazioa, jarraipenean oinarrituta, kanpoko amaierako ebaluazio prozesu batean amaituko da. Amaierako ebaluazio hori kualitatiboa izango da eta planean garatutako ebaluazio prozesuak batu eta integratuko ditu.

➤ **Ebaluazio partzialak:**


Planaren denbora dimentsioa dela-eta, bitarteko ebaluazio global bat egin beharrean, ebaluazio partzialen egutegi bat egingo da, mikro mailatzat hartu denari buruz hausnartu ahal izateko. Hots, Planaren esparruan garatutako "proiektuak", hala nola dirulaguntza deialdien prozesuak eta mekanismoak, kuadrilletako berdintasun egiturak edo Laia Eskola.



IV Plan Foral para la
IGUALDAD
de mujeres y hombres en Alava

ERANSKINA

- I. BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN XEHETASUNAK
- II. ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUA LABURBILDUTA
- III. AFA-KO SAILEN INDARREKO EGITURA
- IV. ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK



ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA (ORDENA ALFABETIKOAN):

1. ACOVI (Gasteizko Kontzeju Elkarte)
2. ADAP (Presoei Laguntzeko Elkarte)
3. AGLE
4. Francisco de Vitoria BHIko IGE
5. AMPEA
6. ARASKI (Arabako Emakumeen Saskibaloia)
7. ASASAM (Aiarako gaixo mentalen elkarte)
8. ASMMA (Bularreko Minbizia eta Ginekologikoa duten Emakumeen Arabako Elkarte)
9. AMA elkarte
10. Denbora Bankua elkarte
11. El Pilagar K. Elkarte
12. Clara Campoamor Elkarte
13. Mujer Campezana Kultura Elkarte
14. Solastiar Emakumea Sustatzeko Kultura Elkarte
15. ZINHEZBA Kultura Elkarte
16. Kuéntame elkarte
17. Gu ere Puentelarra berdintasunerako elkarte
18. ASVE
19. Barrundiako Emakumeak - Mujeres de Barrundia
20. Elizbarrutiko Caritas
21. Maitasun Etxea
22. HIESaren aurkako Herritar Batzordea
23. Mugarik gabeko Bihotza
24. Gurutze Gorria (Araba)
25. Eginaren Eginez
26. EMACОВI (Gasteizko Kontzejuetako Emakumeen Sarea)
27. Emaize Sexología Zentroa
28. Emakume Langilearen Defentsan
29. Ez Berdin Zentroa
30. Euskadiko Nekazari Elikagaien Kooperatiben Federazioa
31. ADRA Fundazioa
32. Beti-gizartean Fundazioa
33. Mundubat Fundazioa
34. Gasteiz On
35. Gizarterako
36. Gure Soroa
37. IRSE Gizarteratze Guneak
38. Menagaraiko Emakume Taldea
39. ONGIZ
40. Landako Emakumeen Sarea
41. Sartu Alava
42. Sexagerian

39

LANKIDETZA

Ana Agirre Sáez de Egilaz – Elo Mayo Cabrero – Soledad Murillo De la Vega – Norma Vázquez García.

LAGUNTZA TEKNIKOA:

Sara Ibarrola Intxusta – Victoria Jiménez Zozaya – Rocío Rodríguez Prieto – Josetxu Riviere Aranda

II. ERANSKINA. ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUA LABURBILDUTA

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE)

- 1948an Giza Eskubideen Adierazpena onartu zuen. “Emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna” esplizitatu zen lehen aldiz.
- 1979an “Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko hitzarmena” (CEDAW) hartu zuen, Estatuak 1984an berretsi zuena. Hitzarmen horrek Estatuaren konpromisoa ekarri zuen emakumeen aurkako bereizkeria mota oro desagerrarazteko neurriak hartzeko: araudian emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa sartuz, bereizkeriarik eza bermatzen duten erakunde publikoak jarriz eta pertsonen, erakundeen eta enpresen emakumeen aurkako bereizkeria ekintza oro ezabatzea bermatuz.
- 1975a Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zen. Mugarria izan zen berdintasun politiketan eta Mundu Konferentzien hasiera izan zen. Konferentzia horiek eragin argia izan dute planetaren zati handi baten berdintasun politiken eremuan. Gobernuak ezarri behar dituzten jarduerak eta planak bultzatzea eta garatzea ekarri dute konferentziak. Gobernuak NBEren azterketaren pean geratzen dira haiek aplikatzen direla baloratzeko.

40

Duela 20 urte baino gehiago egin zen IV. eta azken mundu konferentziaren ondoren, New York, Beijing +5 2000an, Beijing +10 2005ean, Beijing +15 2010ean eta azkena iaz, Beijing +20, NBEk bultzatutako azken mugarririk esanguratsuenak izan dira. Haietan, aukera berdintasuneko politiken eremuan maila unibertsalean egondako aurrerapenak eta geratzen diren erronkak baloratu dira.

ERAKUNDEA	ARAU ESPARRUA	PROGRAMA ESPARRUA
NBE	Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko hitzarmena 1979 (CEDAW ingelesezko sigletan). Espainiak 1984an berretsia.	1975. I. Mundu Konferentzia. Mexiko
		1980. II. Mundu Konferentzia- Kopenhage
		1985. III. Mundu Konferentzia Nairobi
		1995. IV. Mundu Konferentzia eta Beijing – Ekintza Plataforma
		2000. Beijing + 5.
		2005. Beijing +10.
		2010. Beijing + 15.
		2015. Beijing + 20
		2016. Funtsezko estrategiak genero ikuspegiko garapen jasangarrirako 2030 Agenda aplikatzeko
		Bide guztietatik emakumeen aurkako bereizkeria mota oro ezabatzeko politikak sortu eta jarraitzera konprometitzen du. Hitzarmenak 25 artikuluko biltzen ditu eta CEDAW batzordeak 4 urtean behin ebaluatzen du bete diren

EUROPAR BATASUNA

NBEk bezala, aitzindaria izan da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak errazteko araudiak eta programak bultzatzen eta garatzen, eta haren ekimenak erreferenteak izan dira estatuentzat eta administrazio eta erakundeentzat.

- Lan berbererako gizonen eta emakumeen ordainsari bereko printzipioa Tratatuaren dago ezarrita 1957az geroztik.
- Egun, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Batasunaren funtsezko balioa da. Jasota dago Europar Batasunaren Tratatuaren 2. eta 3. artikuluetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 8., 153. eta 157. artikuluetan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. eta 23. artikuluetan.
- 1978az geroztik zuzentarau asko onartu dira, gizarte segurantzari, guraso baimenei, jarduera ekonomikoari eta enpleguari, emakume eta neskatilen sexu esplotaziorako salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari, eta abarri buruz.

Programen eremuan, hauek onartu ditu Europar Batasunak:

- Esku hartzeko ekintza programen edo proposamen praktikoaren kopuru handia.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko balio gisa aitortzeko eta harekin konprometitzeko, eta genero berdintasunerako politikak hazkunde ekonomikorako, lehiakortasunerako eta garapen jasangarrirako ezinbestekoak direla aitortzeko beste ekimen batzuk.

41

ERAKUNDEA	ARAU ESPARRUA	PROGRAMA ESPARRUA	
		EKINTZA PROGRAMAK	BESTE EKIMEN BATZUK
EB	Zuzentarauak Gomendioak, Ebazpenak. 1975 – egun	1982-1985 I. Ekintza programa	
		1986-1990 II. Ekintza programa	
		1991-1995 III. Ekintza programa	
		1996-2000 IV. Ekintza programa	
		2001-2005 V. Ekintza programa	
		2006-2010 IV. Ekintza programa	2006. Genero Berdintasunerako Europako I. Ituna
			2010 Emakumearen Karta, Europako Batzordeak 2010eko martxoaren 5ean erabakitakoa
	2010-2015 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako estrategia	2011-2020 Genero Berdintasunerako Europako II. Ituna	
	2016-2019 GENERO BERDINTASUNERAKO KONPROMISO ESTRATEGIKOA: 30 ekintza baino gehiago 5 ardatzetan.	2016-2020. EB-KO GENEROAREN ARLOKO EKINTZA PLANA: EBko kanpo harremanetan genero berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko lege esparru berria	

1. Emakumeen parte-hartzea handitzea lan merkatuan eta independentzia ekonomiko berdina
2. Soldata eta pentsioetako arrakala eta desberdintasunak murriztea, emakumeen arteko txirotasunaren aurkako borroka
3. Erabakiak hartzeko berdintasuna sustatzea
4. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka eta biktimak babestea eta laguntzea
5. Genero arteko berdintasunaren eta emakumeen eskubideen sustapena

Emakumeek eta neskatilek giza eskubideak eta funtsezko askatasun guztiak osorik eta berdintasunean erabiltzea lortzeko premia eta genero berdintasunaren eta emakumeen eta neskatilen ahalduntzearen helburua lortzea azpimarratzen du

BERDINTASUNERAKO IV
Foru plana

ESPAINIAR ESTATUA

Joan den hamarkadako erdiko urteetan jarduera legegile garrantzitsua egin du. Lege organiko bi nabarmentzen dira:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan, abenduaren 29ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa, eta uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralaren arloan aldatzen duena.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa, zeinak administrazio publikoak eta enpresak inplikatzen baititu.

Halaber, programa eremuan, 1988tik bost plan abiarazi dira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, azken biak plan estrategiko gisa definituta. Indarkeriaren aurkako planak eta landako emakumeentzako berariazko plan bat ere egin dira. Azken kasu horretan Aukera Berdintasunerako 2014-2016 V. Plan Estrategikoaren ekintza bat da

ERAKUNDEA	ARAU ESPARRUA	PROGRAMA ESPARRUA
EE	<ul style="list-style-type: none"> • 30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egiten dituen arau xedapenetan genero eraginaren balorazioa jasotzeko neurriei buruzkoa. • 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duena. • 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. • 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, Kode Zibila Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralaren arloan aldatzen duena. • 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea arautzen duena. • 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako. 	1988-1990. Emakumeen Aukera Berdintasunerako I. Plana
		1993-1995. Emakumeen Aukera Berdintasunerako II. Plana
		1997-2000. Emakumeen Aukera Berdintasunerako III. Plana
		1998-2000 <i>Etzeko Indarkeriaren aurkako I. Ekintza Plana</i>
		2001-2004 <i>Etzeko indarkeriaren aurkako II. plan integrala</i>
		2003-2006. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Plana
		2008-2011 Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (IV.)
		2013-2016 <i>Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko estrategia nazionala</i>
		2014-2016 Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (V.)
		2015-2018 Landa eremuko emakumeak sustatzeko Lehenengo Plana

42

1. Aukera berdintasuna enpleguan eta ekintzailetzan
2. Kontziliazioari eta erantzukidetasunari laguntzea
3. Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria ezabatzea
4. Emakumeen parte-hartzea hobetzea eremu politiko, sozial eta ekonomikoan
5. Hezkuntza sistemaren bidez aukera berdintasuna bultzatzea
6. Tratu eta aukera berdintasuneko printzipioa politika guztietan erabat txertatzea

1. Emakumeen landa inguruneke eginkizuna ikusaraztea
2. Enpleguaren eta ekintzailetzaren arloan genero arrakasta gaitztea
3. Kontziliazioa eta erantzukidetasuna erraztea
4. Erabakitzeke postuak sustatzea
5. Emakume elkarteei laguntzea
6. Aukera berdintasuneko printzipioa landa ingurunea sustatzeko politiken diseinuan txertatzea
7. Landako emakumeen egoerari buruzko ezaguera hobetzea eta eguneratzea

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

EAEn, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen du erkidegoko genero arkitekturaren egitura eta haren oinarria da.

- Haren 1. artikulua arabera, hau da haren helburua: *“emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonen aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko”*.
- Euskal botere publikoen jarduerak zuzendu eta gidatu behar duten zortzi printzipio orokor ezartzen ditu: tratu berdintasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna, aniztasun eta desberdintasunarekiko begirunea, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea, administrazio organo pluripertsonaletako ordezkapen orekatua, eta administrazio eta erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioa.

Bestalde, Berdintasunaren Legeak taula honetan jaso den programa esparru nabarmena garatu du.

43

ERAKUNDEA	ARAU ESPARRUA	PROGRAMA ESPARRUA
EAE	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa	1991-1994 Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana
		1995-1998 Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Plana
		1999-2005 Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana
		2006-2009 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana.
		VIII. Legegintzaldirako Gidalerroak
		2010-2013 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana
		IX. Legegintzaldirako Gidalerroak
		Genero-indarkeriaren aurka jarduteko Jaurkitzearen I. Plana (2010)
		2014-2016 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.
		X. Legegintzaldirako Gidalerroak
Hezkuntza Sistemako Hezikidetzarako eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Plan Estrategikoa. 2013-2014 ikasturtea		

IV. Planaren esparru zuzentzaileak ezartzen duenez, jarduerak hiru ardatzetan kokatzen dira:

1. Emakumeen ahalduntzea eta balio aldaketa, 2.2. Giz. antolaketa erantzunkidea eta
3. Emakumeen aurkako indarkeria.

Berdintasunerako gobernamentua hobetzeko hasierako ar. jakin bat kontuan hartuz.



4/2005 Legearen aginduak eginkizun hauek ezartzen dizkie foru administrazioei (6. art.) eta aldundien berdintasun erakundeen eginkizunak zehazten ditu (10. art.):

4/2005 LEGEAREN AGINDUA

6. ARTIKULUA	10. ARTIKULUA
FORU ADMINISTRAZIOEN EGINKIZUNAK	ALDUNDIKO BERDINTASUN ERAKUNDEEN EGINKIZUNAK
Egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea , beren administrazio jardueran genero ikuspegia integratze aldera..	Gutxienez administrazio entitate, organo edo unitate bat berdintasun politikak bultzatu, programatu, aholkatu eta ebaluatzeaz arduratzeko
Ekintza positiborako neurriak	Berdintasunaren arloko programazioa edo plangintza , eta dagozkion jarraipen eta ebaluazio mekanismoak.
Programazioa Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren plangintza orokorraren esparruaren barruan .	Ekintza positiboko neurri zehatzak diseinatu eta bultzatzea.
Estatistika eguneratuak egokitzea eta mantentzea emakumeen eta gizonen arteko egoera desberdina ezagutu ahal izateko .	Genero ikuspegia politika, programa eta ekintza guztietan maila guztietan eta fase guztietan txertatzea bultzatzea.
Azterlanak eta ikerketak	Aholkularitza eta lankidetzak sailekin eta mendeko gainerako erakunde eta organoekin.
Sentsibilizazio jarduerak	Herritarren sentsibilizazioa
Foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera .	Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeek oinarritzko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko berariazko programak eta zerbitzuak bultzatzea eta proposatzea.
Sustapen neurriak, udalek eta gainerako toki entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko taxututako programak eta jarduerak garatu ahal izateko .	Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea erraztea bilatzen duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea bultzatzea eta proposatzea.
Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte eskubideetarako sarbidea izateko programak edo zerbitzuak, zerbitzuon izaera dela eta udalez gaineratik eman beharrekoak direnean .	Balizko bereizkeria egoerak detektatzea eta egoera horiek deuseztatze neurriak taxutzea eta sustatzea.
Emakumei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak, beren izaera dela eta udalez gaineratik eman beharrekoak direnean.	Harremanak erakunde publiko eta pribatuekin eta haien parte-hartze eta lankidetzarako bideak.
Harremanak erakunde publiko eta pribatuekin eta haien parte-hartze eta lankidetzarako bideak.	Administrazioari atxikitako langileen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza beharrezkoan diagnostikoa eta kasuan kasu behar den prestakuntza motaren proposamena.
Sexuagatiko bereizkeria egoerak detektatzea eta haiek ezabatzeko neurriak hartzea.	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskudun diren erakunde, organo eta unitateekin eta, bereziki, Emakunderekin, hitz egitea
Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea	

44

Bestalde, 15.3 artikulua Eusko Jaurlaritzaren gidalderoei jarraiki berdintasunerako planak edo programak abiaraztera behartzen ditu aldundiak eta udalak, eta 15.4 artikulua adierazten duenez, planek euren edukiak gokiak diren adierazten duen Emakunderen txostena jaso beharko dute onartuak izan aurretik.

LEGEINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN LABURPENA

10.3. helburu estrategikoa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea: Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea maila guztietan eta herritarren maila guztietan

ILDO ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK
GOBERNAMENDUA ETA GENERO MAINSTREAMING-A: Arabako Foru Aldundian, mainstreaming-a ezartzea lurraldeko kuadrilla eta udaletan, Berdintasunerako IV. Foru Plan berria egin, abiarazi eta haren jarraipena egitea, eta kudeaketarako egiturak diseinatu eta hobetzea foru sektore publikoan	1. AFAn genero ikuspegia zeharkako bihurtzea.
	2. Berdintasun politikak sustatzea Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla eta udaletan.
	3. Berdintasunerako IV. Foru Plana landu, abian jarri eta haren jarraipena egitea.
	4. Lankidetzak publiko-privatua indartzea berdintasun gaietan.
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOEN ALDAKETA: Arabako ahalduntze eskola sortzea, emakumeen ahalduntzearen arloan enpresa sektorearekin eta sindikatu erakundeekin elkarlanean aritzea, sentsibilizazio kanpainak egitea, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilua indarberitzea, eta gay, lesbiana, transexual eta bisexualen kolektiboa xede duen sentsibilizazioa.	5. Arabako ahalduntze eskola.
	6. Enpresa sektorearekin eta sindikatu erakundeekin lankidetzan jardutea emakumeen ahalduntzearen arloan.
	7. Sentsibilizazio kanpainak.
GENERO INDARKERIAREN AURKA BORROKATZEA: Beste erakunde batzuekin lankidetzan genero indarkeriaren diagnostikoa egitea Araban, sentsibilizazio eta prebentzio programa egitea udalerrietan, genero indarkeriaren biktimei arreta emateko protokoloak egitea, Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a) dela eta sentsibilizazio kanpainak egitea, eta gazteen artean genero indarkeriari aurrea hartzeko lanak egitea.	8. LGTB. Sentsibilizazioa
	9. Genero indarkeriaren diagnostikoa egitea Arabako Lurralde Historikoan. Erakundeen arteko lankidetzak.
	10. Sentsibilizazio eta prebentzio programa egitea Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan.
	11. Genero indarkeriaren biktimei laguntzako protokoloak egitea.
	12. Sentsibilizazio kanpainak azaroaren 25erako, Genero Indarkeriaren Nazioarteko Eguna dela eta.
	13. Gazteen artean genero indarkeriari aurrea hartzea
GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA: Sexuen arteko erantzunkidetasuna hobetzea eguneroko zereginetan. Hasieran, horren oinarria izango da gizarte antolaketa erantzunkiderako programa bat egitea, enpresa sektorearekin eta sindikatu erakundeekin erantzunkidetzaren arloan aurreikusitako elkarlana ardazteko.	14. Gizarte antolaketa erantzunkidearen programa egitea.
	15. Lankidetzak enpresari sektorearekin eta sindikatu erakundeekin erantzunkidetasunaren gaian.
ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUENTZAKO LAGUNTZA dirulaguntza ildo bi: 1. Irabazi asmorik gabeko elkarlanean dirulaguntzak eta 2. Toki erakunde eta kuadrillentzako dirulaguntzak, bi kasuetan ere genero ikuspegia gizarte sartzeko proiektuetara bideratuko direnak.	

45

10. ARDATZA. GOBERNAMENDUA, BERDINTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Horiez gain, beste bi ekintza aurreikusi dira 10. ardatzetik kanpo:

5.2.1. GAZTEAK ETA EMAKUMEAK NEKAZARITZA JARDUERAN SARTZEKO LAGUNTZA PLANA: Zenbait herritar talde, hala nola gazteak eta emakumeak, nekazaritza jardueretan hasiera motibatuzko planifikatutako neurri maila bat biltzen du. Horren barruan sartzen dira lehen instalazioetan laguntzea, lehen esperientzia gisa nekazaritza jarduerak egitea bultzatzea eta erakunde arteko erabakiak lortzea, nekazari gazteen esku dagoen nekazaritza lurra mugitzeko.

6.5.4. EMAKUMEEK KIROL EGITEA SUSTATZEA: Emakumeak maila eta adin guztietan kirol egitea bereziki sustatzea bilatzen du ildo estrategikoa. Lankidetzak lerroak sustatuko dira klub, federazio eta elkarteekin, emakumeek antolatzen dituzten eta parte hartzen duten jarduerak babesteko, mezenasgoa bereziki sustatuta

III. ERANSKINA AFA-KO SAILEN INDARREKO EGITURA		
DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA		
ZUZENDARITZA/K	ZERBITZUAK	ATXIKITAKO ORGANOA/K
Kabinetea	1. Miñoien Zerbitzua	
	2. Aldundiaren Idazkaritza Orokorra	
	3. Aholkularitza juridikoa	
	4. Araudiaren garapena eta harremanak Batzar Nagusiekin	
	5. Arabako erakunde juridiko administratiboa	
	6. Idazkaritza Teknikoa eta Herritarren Arreta	
	7. Berdintasuna, Lankidetzeta eta Kulturartekotasuna	
Komunikazioa	1. Gizarte eta Erakunde Harremanak	
EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA		
Ekonomia Garapena	1. Ekonomia Garapena	Araba Garapen Agentzia SA Naturgolf SA Fernando Buesa Arena SA
Lurralde Oreak	1. Toki finantzaketa eta administrazio kudeaketa	Arabarri Babes Zibileko Batzordea Arabako Suhiltzaltze Erakundea
	2. Toki Administrazioa	
	3. Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapena eta Finantzaketa	
OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.		
Ogasuna	1. Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzua	
	2. Zergak Ikuskatzeko Zerbitzua	
	3. Zerga Araudia	
	4. Zerga Sarrerak Kudeatzeko Zerbitzua	
	5. Zuzeneko Zergen Zerbitzua	
	6. Zeharkako Zergen Zerbitzua	
	7. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzua	
	8. Dirubilketa Zerbitzua	
Finantzak eta Aurrekontuak	1. Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzua	
	2. Kontabilitatea	
	3. Aurrekontuetarako eta Erakundeen arteko Konpromisoetarako Zerbitzua	
	4. Finantza Kudeaketa Zerbitzua	
	5. Ondarea	
	6. Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	
	7. Europako Gaietarako Zerbitzua	
ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA		
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena	1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena	Ondasun higiezinak erabili eta baliatzeko batzordea Turismoaren Foru Batzordea Arabako Foru Administrazioaren Agiriak Ebaluatzeko eta Aukeratzeko Batzordea Arabako Kalkulugunea SA
Funtzio Publikoa	1. Giza baliabideak	
	2. Lan-arrikuaren prebentzioa	
	3. Euskara	
Zerbitzu Orokorrak	1. Antolaketa	
	2. Informatika	
	3. Laborategi nagusia	
	4. Ibilgailuak	
	5. Mantentzea	

46

	6. Inprenta	
	7. Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoa	
	8. Laguntza langileak	
	9. Arkitektura	
	10 Arkitekturako Idazkaritza Teknikoa	
NEKAZARITZA SAILA		
Nekazaritza	1. Nekazaritza Garapena	Aldalur Araba
	2. Abeltzaintza	
	3. Zuzeneko laguntzak	
	4. Eskualdeko Nekazaritza Zerbitzuak	
	5. Mahastizaintza eta enologia	
	6. Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoa	
	7. Mendiak	
BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA		
Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	1. Errepideak	ARABAT – Arabako Bideak SA Arabako Garraio Arbitrajerako Batzordea
	2. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoa	
	3. Zerbitzu Juridiko Administrazioa	
	4. Mugikortasuna eta garraioak	
INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA		
Ingurumena eta Hirigintza	1. Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoa	
	2. Natura ondarea	
	3. Ingurumen jasagarritasuna	
	4. Ingurumen kalitatea	
	5. Lurralde Antolamendua eta Hirigintza	
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA		
Euskara, Kultura eta Kirola	1. Euskara	Gazteriaren Foru Erakundea⁵ : <ul style="list-style-type: none"> • Idazkaritza teknikoak • Gazteriako teknikariak • Ostatu en zuzendaritza
	2. Artxiboak	
	3. Museoak eta Arkeologia	
	4. Zaharberritzea	
	5. Kultur Etxea	
	6. Kultur Ekintza	
	7. Ondare Historiko eta Arkitektonikoa	
	8. Kirola	
	9. Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoa	
GIZARTE GAIETAKO SAILA		
Gizarte Zerbitzuak	1. Gizarte Zerbitzueterako Idazkaritza	1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: <i>Zerbitzu espezializatuak (arloko zuzendariordetza teknikoak):</i> Adineko pertsonak. Desgaitasuna duten pertsonak. Adingabea eta familia / Gizarte esku-hartzea <i>Zerbitzu orokorrak (arloak):</i> Ekonomia eta aurrekontuak. Antolaketa eta informatika. Langileak eta Kontratazioa eta Araubide juridikoa 2. INDESA 2010
	2. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa eta Ikuskatzailatza	

47

⁵ GFE eta GOFEn kasuan haien egiturak sartu dira, Planaren esparruan jarduera finalistek garapenean biek duten inplikazioa dela-eta.

IV. ERANSKINA. ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

ARDATZA / ILDOA /HELBURUAK	ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK
I. ARDATZA GOBERNU ONA - GO	
GO 1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EGITURAK	
1.H. Arabako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin daukan konpromisoa handitzen jarraitzea	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Generoaren analisiaren eta ikuspegiaren hedapen maila AFaren funtzionamenduan. ➔ Berdintasun egituren ezarpen maila AFAn eta kuadrilletan.
2.H. AFAn eta kuadrilletan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko egiturak sortzea eta indartzea.	
3.H. Koordinazio mekanismoak ezartzea genero ikuspegia eraginkortasunez eta pixkanaka ezartzeko.	
4.H. Tokiko berdintasun politikak finkatzen laguntzea, lurraldearen aniztasuna eta haren landatartasuna kontuan hartuz.	
GO 2 BERDINTASUNEAN GAITZEKO PRESTAKUNTZA	
1.H. AFAko eta haren erakunde autonomo eta foru sozietateetako langile politikoei eta teknikoei berdintasunaren arloan behar beste prestakuntza daukatela bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Generoko prestakuntzaren beharrezaren pertzepzioko aldaketak AFAko langileen artean. ➔ AFAn genero berdintasunaren arloan prestatutako pertsonak.
2.H. ALHko langile politiko eta teknikoek berdintasuneko prestakuntzarako guneak bultzatzea eta laguntzea.	
GB 3 BARNE KUDEAKETA ETA LAN PROZEDURA KOMUNAK	
1.H. AFaren antolaketako kultura emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lerrokatzea	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Genero ikuspegiaren txertatze maila administrazio prozedura eta ekintzetan
2.H. Administrazio ekintzek eta prozedurek berdintasunean eragin positiboa dutela bermatzea.	
GO 4 POLITIKA PUBLIKOETAKO PARTE-HARTZEA	
1.H. Herritarrek, genero ikuspegi feministatik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak diseinatzen, kudeatzen eta ebaluatzen parte hartzea sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Elkarte mugimenduaren aurrerapen kuantitatiboak (proposamenen kopurua) eta kualitatiboak (proaktibitatea) IV. Planaren jardueretan
2.H. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko aurrerapena dakarten eta berdintasunaren inguruan parte hartzea eta mobilizatzea gonbidatzen duten mugarriak ikusaraztea	
II. ARDATZA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA - EA	
EA 1 EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALERAKO LAGUNTZA	
1.H. ALHko emakumeen eta nesken autoestimua, autonomia eta ongizaterako autozainketa konpontzen eta garatzen laguntzea, ikasketaren eta norberaren ezagueraren bidez.	<ul style="list-style-type: none"> ➔ AFaren programen eragina ALHko emakumeen ahalduntze pertsonaleko prozesuetan.
2.H. Emakumeen genero kontzientziaren garapena indartzea.	
3.H. Araban landatartasuna emakumeentzat bereizkeria eta desberdintasun iturri ez izateko baldintzak sortzea	
EA 2 EMAKUMEEN AHALDUNTZE KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA	
1.H. ALHko emakumeen elkarteak emakumeen ahalduntzeari laguntzen dioten gune gisa ikusaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Elkarte mugimenduaren elkarrizketarako egiturak eta/edo guneak sortzea. ➔ Hobekuntzak ALHko emakumeen enpleguan
2.H. ALHko eta beste herrialde batzuetako emakumeen mugimenduei laguntzea, elkarten arteko sareak eta itunak sortzea bultzatuz.	
3.H. Emakumeentzako kalitatezko enplegua sortzea bultzatzea eta generoko soldata arrakala urritzea.	
4.H. Emakumei eta haien gorputzei buruz dagoen gizarte irudi estereotipatu eta matxista desegitea.	
EA 3 EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA	
1.H. Politika publikoen garapenean emakumeen mugimenduen eta teoria eta praktika feministen eragin handiagoa lortzea.	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Emakumeen eta haien mugimenduen eragina politika publikoetan.
2.H. Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa handitzea eta hari laguntzea.	
3.H. Lidergo femininoko erreferente berriak ikusaraztea eta feminismoak emakumeen eskubideen eraikuntzan duen eragina ezagutzen laguntzea.	

48

III. ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTA BATZUK - IM	
IM 1 INDARKERI MATXISTEN ZUZENENKO ADIERAZPENAK	
1.H. ALHko emakumeen aurkako indarkerien eta bestelako indarkeria matxisten eragina ezagutzea, bereziki landa ingurunean, atalarteko ikuspegia eta bizirik ateratakoen begirada txertatuz.	<p>➔ Aldaketak zerbitzu eta baliabideen emakume erabiltzaileen segurtasunari buruzko pertzepzioan</p> <p>➔ Artatutako pertsonen aniztasuna (jatorria, baldintza sozioekonomikoak, sexu joera, etab.)</p>
2.H. ALHn indarkeriak jasaten dituzten emakume guztiei osoko eta kalitatezko arreta bermatzea, lurralde eta udal aldeak murriztuz eta ahalduntzea arreta horren etorkizun gisa txertatuz	
IM 2. INDARKERIA MATXISTEN EGITURAZKO ADIERAZPENAK	
1.H. Zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzea, biktimizazio bikoitzak edo aniztunak gertatzea ekidinez	<p>➔ Biktimen arretari lotutako araudiaren betetze maila</p> <p>➔ Aurrerapenak erakundearteko koordinazioan (protokoloen kopurua eta egituraketa)</p>
2.H. Koordinazio mekanismoak sortzea eta jarduteko protokoloak eta prozedurak hobetzea bultzatzea, EAEko etxe eremuko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko II. akordioaren esparruan.	
3.H. Gaikuntzaren bidez, esku-hartze profesionalaren xedea emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboa izateko baldintzak sortzea.	
IM 3 INDARKERIA MATXISTEN ADIERAZPEN KULTURALAK	
1.H. Gizartean eta erakundeetan gizonen emakumeen aurka eragindako indarkeria modu guztien nahiz indarkeria matxista modu guztien aurkako arbuioa handitzea.	<p>➔ Diskurtsoetan eta gizarte egitateetan berdintasuna eta indarkerien arbuioa sustatzeko egindako jardueren inpaktua</p>
2.H. Indarkeria mota guztiak mantentzeko eta gizarteratzeko erabiltzen diren gizarte eta kultura ereduak berraztertzen lagundu.	
3.H. Maskulinotasun eredu berdintasunezkoagoak sustatzea.	
IV. ARDATZA ZAINZTEN KULTURA ETA ERANTZUNKIDETASUN BERRI BAT - ZK	
ZK 1 ZAINZTEN GIZARTE BALIOA	
1.H. Zaintzen lan formalak eta informalak ikusaraztea.	<p>➔ Zaintzak emakumeen inguruan naturaltzeari eta baldintza duinetan egiteari lotutako ekimenak gehitzea.</p>
2.H. Lanaren sexu banaketan oinarritutako rolerak eta estereotipoek zaintza lanaren feminizazioan eta ezegonkortasunean nola eragiten duten ezagutzea.	
3.H. Pertsona guztien autonomia, ongizatea eta norberaren denborarako eskubidea bermatuko dituen zaintzen beste eredu bat garatzea bultzatzea	
ZK 2 ZAINZTEKIN ERANTZUNKIDE DEN GIZARTE ANTOLAKETA BAT	
1.H. Erantzunkidetasunetik zaintzen kudeaketan aurrera egiteko ekimenak abiaraztea	<p>➔ Pertsonen zaintza eta autozaintzarako baliabide publikoak gehitzea</p>
2.H. Herritarren ongizate eta bizi kalitate maila handiagoa	

49